

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**PERTSONA TRANSEXUALEI BURUZKO
ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA, BEREZIKI,
GIZON TRANSEXUAL HAURDUNEN FILIAZIO
DETERMINAZIOARI BURUZ**

GRADU AMAIERAKO LANA

ZUZENBIDE FAKULTATEA, GIPUZKOAKO ATALA

ZUZENBIDEKO GRADUA

2023-2024 IKASTURTEA

Lanaren egilea: **EUKENE LARRARTE ARTEAGA**

Lanaren zuzendaria: **ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ**

Entrega-data: 2024ko ekainaren 13a.

About how it feels to be a pregnant man; Incredible. Despite the fact that my belly is growing with a new life inside me, I am stable and confident being the man that I am. In a technical sense I see myself as my own surrogate, though my gender identity as male is constant. To Nancy, I am her husband carrying our child – I am so lucky to have such a loving, supportive wife. I will be my daughter's father, and Nancy will be her mother. We will be a family.

Thomas Beatie (2008)

El enfoque para mí no debería centrarse en el derecho al propio cuerpo en el sentido de modificarlo sino en la libertad de vivir el propio cuerpo sin malestares ni violencias, sin presiones que derrumban nuestra autoestima. ¿Hasta cuándo vamos a aceptar que la transexualidad es la solución al malestar cuando de hecho sabemos que es un problema estructural debido a la rigidez del género? Cuando miro hacia el futuro tengo muy claro que no quiero vivir en una sociedad en la que la gente entra en un quirófano para modificar aquello que no le gusta de su propio cuerpo. La utopía es totalmente otra. Llegamos tarde pero llegamos a tiempo.

Miquel Missé. A la conquista del cuerpo equivocado (2018).

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. GIZON TRANSEXUAL HAURDUNEN ERREALITATE JURIDIKOA

2.1 Familia-egitura tradizional batetik, familia-eredu berrietara

2.2 Kasu errealak: Thomas Beatie eta Freddy McConnell

3. NAZIOARTEKO ARAU ESPARRUA

4. EUROPAKO ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA

4.1 Europako marko juridikoa

4.2 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia gizon trans haurdunen filiazioari buruz

5. GIZON TRANSEXUAL HAURDUNEN FILIAZIOA ZUZENBIDE KONPARATUAN

5.1 Suediako eredia

5.2 Ontario, Israel eta Ingalaterra, beste alternatiba juridikoak eskainiz

6. ESPAINIAKO ERREGULAZIOA GIZON TRANSEXUALEN GURASOTASUNA DETERMINATZEARI BURUZKOA

6.1 Kode Zibila

6.2 Erregistro Zibileko Legea

6.3 4/2023 Trans Legea

7. GIZON TRANS HAURDUNENTZAT IRTENBIDE POSIBLEAK

7.1 Espainiako ordenamenduan gizon haurdunen filiazio determinazio egoki baten premia

7.2 Pertsona transexualen eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakunde publikoak

7.2.1 Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

7.2.2 Emakunde

7.2.3 Erakunde publiko independente baten beharra

7.3 "Amaren" eta "Aitaren" rol tradizionalak zalantzan jarriz

7.3.1 Amatasuna eta aitatasuna birdefinituz

7.3.2 Zaintza-eginkizunak erdigunean

8. ONDORIOAK

ITURRIAK

LABURPENA: Trans pertsonen eskubideen aldeko mugimendua, araudien bidez ezarri nahi dena, gaur egungo gai politiko eztabaidagarrienetako bat bihurtu da. 4/2023ko Trans Legeak ez zuen bukatu trans kolektiboak pairatzen dituen diskriminazio eta hutsune legal ororekin. Lege horrek pertsona transen autodeterminazio aitortu zuen, baina airean utzi ditu beste hainbeste eskubide, hala nola guraso transexualen filiazio determinazioa. Gizon transexualek behin erditu eta gero ezin dute Erregistroan "aita" gisa identifikatu, legeak "ama" izendatzea derrigortzen dute. Lan honetan gizon trans haurdunen filiazio determinazioari buruzko Nazioarteko araudia, Europa mailakoa eta araudi nazionala aztertu dira. Amaieran irtenbide juridiko posible bat proposatzen da eta baita ere hausnarketa bat egiten da genero estereotipoak eta generoari lotutako rol tradizionalak hausteari buruz.

Hitz gakoak: gizon trans haurduna, filiazioa, familia guraso

RESUMEN: El movimiento por los derechos de las personas Trans, que se pretende implantar a través de normativas, se ha convertido en una de las cuestiones políticas más controvertidas de la actualidad. La Ley Trans 4/2023 no acabó con toda discriminación y vacío legal que sufre el colectivo trans. Esta ley reconoció la autodeterminación de las personas trans, pero deja en el aire otros tantos derechos como la determinación de filiación de los padres transexuales. Los hombres transexuales, una vez que han dado a luz, no pueden identificarse en el Registro como "padres", la ley obliga a denominarlos "madres". En este trabajo se ha analizado la normativa internacional, europea y nacional sobre la determinación de filiación de los hombres trans embarazados. Al final se propone una posible solución jurídica y una reflexión sobre la ruptura de los estereotipos de género y los roles tradicionales asociados al género.

Palabras clave: hombre trans embarazado, filiación, familia, parentalidad

ABSTRACT: The Trans People's Rights Movement, which is to be established by regulation, has become one of the most controversial political issues today. The Trans Act of 4/2023 did not put an end to any discrimination and legal vacuum in the trans collective. This law recognized the self-determination of trans persons, but has left in the air so many other rights, as the determination of filiation of transsexual parents. Transsexual men cannot identify themselves as "fathers" in the Register once they have given birth, but the law requires them to be named "mothers". This work has examined the international, European and national regulations on the determination of filiation of pregnant trans men. At the end, a possible legal solution is proposed and a reflection is made on the breakdown of gender stereotypes and traditional gender roles.

Key Words: Pregnant trans men, filiation, family, paternity

LABURDURAK

Adib. Adibidez

art. artikulua

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa

EAO Estatuko Aldizkari Ofiziala

EB Europar Batasuna

EK Espainiako Konstituzioa

EZ Erregistro Zibila

EZL Erregistro Zibilaren Legea

GEAU Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala

GEEA Giza Eskubideen Europako Auzitegia

KZ Kode Zibila

LO Lege Organikoa

NBE Nazio Batuen Erakundea

OGAEH Oinarrizko Giza Eskubideen eta Askatasunari buruzko Europako Hitzarmena

orr. orrialdea

RAE: Real Academia Española

LGTBI: Lesbiana, Gay, Transexual, Bixesual eta Intersexual pertsonak

Hiztegia

TRANSEXUAL: Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa ez baizik bestekoa sentitzen dena. Laburturik, 'trans'.

EMAKUME TRANSEXUALA: emakumea, jaiotzean gizon kategorizatu zutena, zakila eta barrabilak izateagatik

GIZON TRANSEXUALA: gizona, jaiotzean emakume kategorizatu zutena, alua izateagatik.

GIZON HAURDUNA: pertsona bat uteroan jaiotzean eta "gizona" izateko trantsizioa hasten duena. Haurdun geratzeko borondatea duenez, hormonazio prozesua eten (testosterona adibidez) eta haurdun geratzen dena.

SEXU-BERRESLEIPENA, SEXUA BERRESLEITZEA: prozedura kirurgiko bat da zeinaren arabera pertsona transexual baten sexu-ezaugarriak aldatzen diren, itxutaz eta/edo funtzionalki, bat egin dezaten genero batek gehienetan izan ohi dituen sexu-ezaugarriekin.

"AMA" eta "AITA": bi termino hauek kakotzekin erabiliko dira, lan honek modu batez zalantzan jartzen dituelako tradizionalki bi figura horiei lotutako estereotipo eta rolak.

GURASOTASUNA, GURASO: Aita eta Ama terminoak erabili beharrean, guraso edo gurasotasuna (guraso-estatusa) termino neutroak erabiliko dira.

1. SARRERA

Trans pertsonen eskubideen aldeko mugimendua, araudien bidez ezarri nahi dena (legeak, dekretuak, etab.), gaur egungo gai politiko eztabaidagarrienetako bat bihurtu da. Hala ere, kontu hau ez da berria, arrakasta eta porroten historia propioa du. Historia hau oso lotuta dago medikuntza zientziekin, psikiatriarekin adibidez. Patologizazioaren eta kontrakoa lortzeko borrokaren historia da. Gainera, diziplinarteko hausnarketa ahalbidetzen duen istorioa da, zuzenbidetik hasi eta etikaraino, politika eta erlijioa barne.

4/2024 Trans lege berria indarrean sartu arte, Espainiako Estatuan eta hemendik kanpo, pertsona trans anitzen bidea hurrengoa zen: lehenik psikologo edo psikiatra batek diagnostikoa egiten behar ziun, transexualitatea patologizatuz; ondoren endokrino batek hormonazio prozesua abiatu; eta horrek eragindako aldaketak ongi jasotzen zirenean, mahai gainean jartzen dizuten lehen aukeretako bat histerektomia da, uteroaren eta obuluen hustuketa. Horrek bi ondorio ditu: batetik, trantsizioaren prozesua azkartzea, “nahi ez dituzun hormonak” kentzen dizkizutelako zuzenean; eta bertzetik, hormona sintetikoen menpeko bilakatzea bizi osorako. Noski, antzututa.

Hori izatea bide bakarra problematikoa suertatzen zen gizon haurdunaren iritziz. Eta horregatik ezinbertzekoa bilakatu zen trantsiziorako protokolo berriak sortu eta gizon haurdun erreferente gehiago izatea lortzea.

Testuinguru honetan, 2023ko otsailaren 28 an martxan jarri zen Trans lege berria. Lge honen funtsezko helburua pertsona transen eskubideak errespetatzea zen Erregistro Zibilean izena eta sexua aldatzerakoan. Esan bezala ordura arte ziurtagiri mediko bat eskatzen zen aldaketa egin nahi zuten pertsonentzat. Legea aldatu denetik ez da halakorik behar, genero autodeterminazioa aitortzen duelarik. Zoritxarrez, hutsune legelak badaude oraindik, horien artean gizon transexualen filiazio determinazioari dagokionean.

Teknologia berriek arazo hori zabaldu egin dute, haurdunaldi transexuala gauzatzeko aukera dagoelako, eta horrek zalantza juridiko batzuk sortu ditu, zuzenbidearen eta biologiaren kontzeptu kontrajarriak baitaude aurrez aurre. Fenomeno berria denez, errealitate transexualari eta, zehazki, haurdunaldi transexualari buruzko azterlanak urriak dira. Ugalketari dagokionez, legezko hutsunea sortzen da ugalketari eta transexualitateari dagokienez, eta horrek transexualen babesgabetasuna ugalketa-eremuan. Galdera etiko eta juridiko ugari sortzen dira gai honen inguruan, lan honekin erantzuten saiatuko

garenak. Seme-alaben jaiotza-agirietan agertzen diren trans gurasoen estatusari buruzko eztabaidak ugaritzen hasi dira, bilakaera sozio-juridiko eta medikoaren konbinazioaren ondorioz.

Eskuartean dugun lanean bi bloke nagusitan banatuko nuke. Batetik, gizon trans haurdunen filiazio determinazioari buruzko araudi internazionala, europa mailakoa eta nazionala aztertuko ditugu. Beste blokean berriz, kuestio honi irtenbide juridiko posible bat emango diogu, eta aldi berean ikuspegi antropologiko juridiko sakonago bat ere emango dugu.

2. GIZON TRANSEXUAL HAURDUNEN ERREALITATE JURIDIKOA

Transexualen kolektiboa kolektiborik zaugarrienetako bat da eta gizarteak eta baita ere zuzenbideak ezartzen dituen genero-arauen menpe aurkitzen da. Genero-arau horiek binarismoan oinarritzen dira: batetik emakumezkoa eta bestetik gizonezkoa. Binarismo hori familia-ereduan islatzen da. Bi genero horien banaketatetik eratorren da amatasuna eta aitatasuna.

Duela gutxi arte antzutasuna zen ordaindu beharreko prezioa generoz trantsizionatu nahi izanez gero. Orain ordea, trantsizionatzeak ez du derrigorrez antzutasuna ekartzen eta gero eta pertsona trans gehiago guraso bihurtzen dira sexu-harremanen, espermatozoideen dohaintzaren edo ugalketa laguntza bidezko ugalketa tekniken bidez. Horrega erronka handienetako bat gizonen haurdunaldia da. Pertsona hauek emakume izatetik gizon izatera trantsizionatu dute, kirurgiara jo gabe eta euren uteroa mantenduz. Horrek ondoren ahalbidetzen dietelarik haurdun geratzea.

Aipatutako erronkari jarraiki, pertsona transexualak mehatxu bat dira gizarteak barneratutako genero-ohiturentzat eta zuzenbideak ezarritako genero arauentzat, are gehiago guraso biologiko izatea erabakitzen duten unetik. Gizartearen begietan gizon bat haurdun ikusteak sortzen duen inpaktuaz gain, familia-tradizionalarekin hausten dute aldi berean. Izan ere, pertsona hauek aurretik aipatutako aitatasun eta amatasun estereotipo tradizionalarekin talka egiten dute, legegileak oraindik ez baitio arretarik jarri kontu honi. Legegilean hutsune bat dago kontraesana dagoelako gizon transexual haurdunen seme-alaben filiazioa determinatzeko garaian, legeak ez baitu baimentzen gizon hauek "aita" bezala erregistratzea, "ama" bezala edo terminologia neutroa erabiltzera behartzen dituelako.

Nazioarteko herrialdeetan urteak dira horrelako errealitateak epaitegietara eman direla. Epaitegi hauek uko egiten diote "aita" bezala inskribatzeko nahiari, zuzenbidean oinarrituz erditzen duena beti "ama" dela baieztatuz.

Espanian egoera bestelakoa da. Oraindik esku batekin zenbatzen dira haurdun geratzen diren gizonak eta kontu hau ez da epaitegietara heldu. Honenbestez, ez dago epai bakar bat gai honi buruz mintzatu dena, nahiz eta aurrerago ikusiko dugun bezala Lege Trans berriak erreferentzia txiki bat egin dion.

2.1 Familia-egitura tradizional batetik, familia-eredu berrietara

Familiak berebiziko garrantzia izan du eta betetzen jarraitzen du kultura guztien gizarte-antolaketa. Espainiako Errege Akademiaren Hiztegiaren arabera, familia "elkarrekin bizi diren elkarren ahaidetutako pertsonen taldea" da.

Antropologikoki, familia bere funtzioengatik deskribatzen da, bere kideek elkarri eskaintzen dioten afektua eta laguntza bezala (soziala, ekonomikoa, politikoa, besteak beste). Funtzio horietan oinarrituta, gizarte bakoitzak bere familia mota definitu du, kultur testuinguruaren arabera aldatzen den osaera eta egiturarekin. Funtsezkoa da ulertzea ahaidetasunaren biologia eraikuntza kulturala dela, beste faktore batzuek ere eragin nabarmena baitute familia-harremanen izaeran, hala nola zainketek, elkarreraginek, elkarrekiko laguntzak eta aukera askeak.

Familia nuklearra da gure herrialdeko bizikidetzaren modu zabalduena. Baina beste eredu batzuk ere agertzen dira, eta horrek agerian uzten du Espainian demokraziaren garaitik izandako eraldaketa. Cordero del Castillo (2010)¹ familiar aldaketan eragin duten faktoreez mintzatzen da. Honako hauek dira aldaketa horiek azaltzen dituzten faktoreetako batzuk: praktika eta erritu sozialen pixkanakako laiotasuna, sexu bereko bikoteen eskubide zibilen bilakaera, dibortzioen eta bigarren ezkontzen gorakada, izatezko bikoteen orokortzea edo ezkontzari lotuta ez dauden amatasun/aitatasuna. Esparru soziologiko eta demografiko hori ulertzeko, Cea D 'Anconak (2009)² hainbat

¹ Cordero del Castillo, Prisciliano (2010). «La familia española entre el tradicionalismo y la postmodernidad». Humanismo y Trabajo Social, 9, 157-170. Dialnet

² Cea D'Ancona, M^a Ángeles (2009). «La sociedad española ante los nuevos modelos de familia». Panorama Social, 10, 8-22

ezaugarri bereizgarriren konbergentzia aipatzen du. Lehenik eta behin, familia-eredu desberdinak sortu dira: familia nuklear tradizionalaz gain, beste forma batzuk ere sortu dira, dibortzioa eta sexu bereko pertsonen arteko loturak ahalbidetzen dituzten gizarte-eta lege-aldaketak direla eta. Familia-nukleoa ez da batez ere ugalketan zentratzen, baizik eta kideek ezartzen dituzten loturetan, ezkontzako edo odolkidetasuneko loturak egon ala ez, eta, are gehiago, seme-alabarik gabeko bikoteak ere barne hartzen ditu; beraz, ez da beharrezkoa ugalketarik egotea. Aldaketa horiek guztiek familia-kontzeptua berriz definitzea dakarte, komunitate homosexualak, lesbianak, transexualak, bisexualak eta queerrak eskubide zibilak lortzeak bultzatuta.

Pertsona transexualak eta LGTBI kolektiboko gainerako pertsonak genero-arauen biktima zuzenak dira, eta eremu sozialean pairatzen dituzten diskriminazioaz gain, hala nola gorroto-delitu zein biolentzia fisikoak, zuzenbidearen eremuan ere baztertuak izateko joera dago. Egia da azken hamarkadetan nazioarteko erakunde eta auzitegiek kolektiboa babesteko ahaleginak egin dituztela txosten, ebazpen eta gomendio desberdinak argitaratuz. Pausurik garrantzitsuenetako bat Yogyakarta printzipioak izan ziren.

Denborarekin hortaz, pertsona transexualek geroz eta onarpen sozial eta juridiko handiagoa izatea lortu dute, baina oraindik diskriminazio eta hutsune legalak existitzen dira eremu desberdinetan, horietako bat familia-eremua izanik.

Transexualitatea normalizatzen ari den heinean, familia-egitura berriak sortu dira. Pertsona transexualak ez dira familia-egitura berri horien adibide bakarrak. Familia-eredu berri horiek dira hala nola egitatezko bikoteak, harreman ez matrimonialak, ezkontza homosexualak, monoparentalak, kogurasotasuna³ edota guraso transexualak.

Horrela, denboraren poderioz, familia-eredu tradizionalaren gainbehera gertatu da eta pluralitate familiarra erdietsi da, gizartea izaten ari den aldaketen isla izanik. Aldaketa hori ekarri duen arrazoietakoa bat izan da pertsonen eskubide-berdintasunaren aitortza, haien sexua edozein dela ere. Horrek deslegitimatua eta indargabetua egin du

³ Espainiako Bioetika Batzordea (2024). *Informe del comité de bioética de España sobre coparentalidad contractual previa a la concepción. Reflexiones y recomendaciones.* https://comitedebioetica.isciii.es/wp-content/uploads/2024/04/Informe_Coparentalidad_CPC_CBE.pdf. El Comité de Bioética de España ha acuñado la expresión “coparentalidad contractual previa a la concepción” (coparentalidad CPC) para referirse a una situación en la que dos personas –o en ocasiones más de dos– entre las que no existe ninguna relación afectivo-sexual deciden tener un hijo o una hija en una crianza en común, previa firma de un acuerdo en el que se establecen las responsabilidades, las obligaciones y los derechos que corresponden a cada cual y los parámetros en los que se llevarán a cabo los cuidados y la educación. Esta es, también, una posibilidad empleada cuando los integrantes de la comunidad LGTBI deciden tener descendencia en común y compartir las responsabilidades, los cuidados y la educación.

ezkontza-erakundeetan gizonen eta emakumeen arteko desberdintze juridikoa. Baina are haratago, zalantzan jarri du orain arte indarrean egon den familia-eredu heterosexuala.⁴

Dena den, badirudi familia plural berri horren barruan ere batzuk onargarriagoak direla beste batzuk baino. Zuzenbidea jada egokitu da familia monoparental edo homosexualetara, baina ezin da berdina esan gizon haurdunen kasuan. Azpimarratzekoa da gizon haurdunen estatusa nahiko egoera berria dela, ez baita ahaztu behar duela gutxi arte transexualitatea patologiatzat jotzen zela, eta gaixotasun mental duten pertsonen trataera izan duela eremu sozial, juridiko eta baita ere osasun-arloan⁵. Aitzitik, Hilda Abelleiraren ustez⁶, oraindik ere pertsona transen kolektiboa errefusatzen da, eta guraso izan nahi duten pertsona transeraino hedatzen da, hauen errealitatea ezkutatzeko saiakera batean. Honek sortzen duen zalantza da ea zergatik estatuak gizon haurdunak gaitzesten dituen, eta zergatik emate dion horrenbeste garrantzia familia instituzioari. Horren erantzuna Olga Sanchezek eman diezaguke⁷. Olga Sanchezek dioen moduan, familia instituzio juridiko bat da. Horrela estatuak, familiak eratzeko ukanbeharrak arautu ditu, lotura familiarak formalizatuz, eskubide eta obligazioak ezarriz ezkontideen artean, eta baita ere guraso eta seme-alaben artean, eta abar luze bat. Familia edozein estatutan pieza oso garrantzitsu bat da, eta horregatik premiazkoa da familia-eredu guztiak arauetan barnebiltzea. Esaterako, familiak oinarrizko ideia eta baloreak transmititzen dizkio gizarteari, eta hori beragatik beharrezkoa da elkarlan hirukoitza; familia, gizartea eta estatuaren artean.

⁴ Vilella Llop, M. D. P. (2021). Hacia un nuevo modelo de derecho de familia: análisis de las figuras y herramientas emergentes. Dykinson.

⁵ Roldán-Mesa, S. (2020). Asistencia sanitaria a personas transexuales: igualdad y libre autodeterminación de la identidad de género. *Trabajo Social Global – Global Social Work*, 10(19), 343-364.

⁶ Abelleira, H. (2008). Transexualidades y parentalidad. *Psicoanálisis de las configuraciones vinculares: revista de la Asociación Argentina de Psicología y Psicoterapia de Grupo*, (31), 21-41.

⁷ O. Sánchez, (2010) *Igualdad sexual y diversidad familiar: ¿La familia en crisis?* Universidad de Alcalá <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/53518>. Olga: “Familiaren eraketa tradizional, sozial eta legala izan da, hain zuzen ere, emakumearen diskriminazioaren, haren zapalkuntzaren eta gizonarekiko mendekotasunaren funtsezko faktoreetako bat; azken batean, patriarkatuaren konfigurazioa gizartearen egitura-oinarrian dago. Egitura horrek politikaren, zuzenbidearen, kulturaren, pertsonen arteko harremanen eta norberaren nortasunaren antolamendua markatzen du, eta ezingo luke iraun familian duen garrantzi sakonik gabe, gizarte-eta kultura-erreproduktzioko estrategien funtsezko elementu gisa”. Beraz, modu erraz batean esanda, gizon haurdunek gizarte patriarkala desafiitzen dute eta patriarkatutik sortutako familiak ere. Izan ere, estatuak ez du nahi orain arte familia eta gizartea kontrolatzeko izan duen boterea galdu”.

Horrez gain, familia krisian dagoela dio eta horren arrazoia familian antolatzeke modu berri horiek izan daitezkeela, gizon haurdunak barne.

2.2 Kasu errealak: Thomas Beatie eta Freddy McConnell

Gizon haurdunek familia eremuan duten papera aztertu ondoren, beharrezkoa da aztertzea zein den pertsona hauen errealitate juridikoa. Hutsune legal nabarmenena da gizon transexual batek erditu eta ondoren Erregistro Zibil eta haurraren jaiotza-agirian izandako desoreka legala.

Kode Zibilaren eta Erregistro Zibileko legearen arabera, gizon transexual batek erditu ondoren ezin du jaiotza-agirian “aita” terminoa erabili, horren ordez “ama” erabili behar du nahitaez. Kasu gehienetan pertsona hauen nahia “aita” terminoa erabiltzea da, termino horrekin identifikatzen direlako. Baina, zuzenbideak erditzen duenari “ama” izendatzeko betebeharra ezarri du. Errealitate juridiko honek zenbait galdera uzten ditu airean: Zein da pertsona hauen guraso estatusa? Pertsona hauek haurraren “ama” edo aita” dira?

Errealitate honek suposatzen duen injustizia erakusten lehenak Thomas Beatie eta Freddy McConnell gizon transak izan ziren.

2008an Thomas Beatiek mahai gainean jarri zuen bere errealitatea⁸. Thomas “emakume” izatetik “gizon” izatera transizionatzen ari zen, testosterona tratamendua jasotzen zuen bitartean. Trantsizio horretan, bere uteroa mantendu zuen (ez zuen sexua beresleitzeko kirurgiarik izan).

Nancy bere emaztea zen eta haurdun geratzeko ezintasuna zuen. Beatiek orduan bere testosterona hormonaren injekzioak eten zituen, eta intseminatuko zuen mediku bat aurkitu ez zuenez (medikuek nahi ez zutelako), etxean Nancyren laguntzaz intseminazio artifizialaren bidez haurdun geratu eta alaba bat izan zuen. Ipar Ameriketean, erditu zuen lehen gizona izan zen.

⁸ Beatie. T (2008ko martxoak 14) Labor of love: is society ready for this pregnant husband? *Advocate*. <https://www.advocate.com/news/2008/03/14/labor-love>

Beatiren kasua aitzandari izan zen eta munduak lehen aldiz ikusi zuen haur bat erditzen zuen gizon bat. Baita ere Thomas-en testigaintzak balio izan zuen erakusteko gizon transek dituzten zailtasunak osasun zerbitzuetan eta baita ere zuzenbidearekin harremanetan.

Antzeko gertatu zen Freddy McConnell-en kasuan. Freddy gizon trans bat da, bere ugalketa-organoaz (uteroaz) baliatu eta bere seme-alabak erditu zituenena⁹. 2019an Erresuma Batuko epaitegiari eskatu zion "aita" bezala onartua izatea baina epaileak ukatu egin zuen eskaera hau¹⁰. Izan ere, etxeko auzitegiek azpimarratzen zuten beharrezkoa zela jaiotzak erregistratzeko eskema administratiboki koherente eta seguru bat gordetzea, zeinean erditzen den pertsona "ama" gisa erregistratzen baita modu koherentean, *mater semper certa est* aruari jarraiki. Arau horrek eta, oro har, aitatasun juridikoaren zehaztapenak, gurasoak haurraren kontzepzioari egiten dion ekarpen biologikoa oinarri hartuta, legegilearen legezko helburu da seme-alabak guraso biologikoei legez esleitzea.

3. NAZIOARTEKO ARAU ESPARRUA

Nazioarteko esparruan, ezinbestekoa da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala¹¹ aipatzea. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala Nazio Batuen Batzarrak onartu zuen 1948an, II Mundu gerra ondoren. Hasiera batean ez zen lortu estatu sinatzaile guztiek berrestea. Horregatik pertsona izate hutsagatik gizabanako orori bermatu behar zaizkion oinarrizko printzipio eta eskubideei buruzko gida orientatzailatzat hartu zen. 1. artikuluan hau ezartzen du: "*gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela*"; halaber, 2. artikuluan jasotzen du bertan aurreikusitako eskubide eta askatasun guztiak aplikatzean ez dela "*inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik*". Adierazpen Unibertsalaren aitorten

⁹ Booth, R. (2020ko apirilak 19). Transgender man loses appeal court battle to be registered as father. *The Guardian*. <https://www.theguardian.com/society/2020/apr/29/transgender-man-loses-appeal-court-battle-registered-father-freddy-mcconnell>

¹⁰ Familia arloko auzitegi nagusiaren eta administrazioarekiko auzien epaitegiaren apelazio-errekurtsoa (Administrazioarekiko auzien epaitegian), 2020ko apirilak 29, 2019/2730, McConnell eta YY Erregistro Orokorren aurka

¹¹ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Paris, 1948ko abenduak 10a. <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

inplizitu hori ageriko bihurtzen da LGTBI pertsoneri dagokienez, nazioarteko testu eta hitzarmen askotan. Nabarmentzekoak dira 2007ko Yogyakartaeko printzipioak. Horiek azpimarratzen dute Giza Eskubideen nazioarteko zuzenbidea aplikatu behar dela sexu orientazioari, genero-identitateari eta -adierazpenari eta sexu ezaugarriei buruzko gaiari, eta LGTBI pertsonen giza eskubideen babesa bermatzeko eskatzen die estatuei. Horrez gain, ohorea eta bizitza pribatua babesten ditu 12.artikuluak.

Gorago esan bezala Yogyakartaeko printzipioek¹² paper garrantzitsu bat jokatzen dute pertsona transexualen eta LGTB kolektibo osoaren eskubideak bermatzeko unean. Yogyakartaeko printzipioak, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko giza eskubideen nazioarteko legeria aplikatzeari buruzkoak, bilduma bat osatzen dute, eta orientazio sexualarekin eta genero-identitatearekin zerikusia duten gatazka oro ezabatzea du helburu. Bilduma hau hogeita bederatzi printzipio eta hamasei gomendioek osatzen dute, zeinak gobernu eta gizarte desberdinei zuzenduta dauden. Yogyakartaeko printzipioak Genevan aurkeztu ziren, 2007ko martxoaren 26an, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluan. Ondoren, 2017an bertsio berri bat aurkeztu zen, "Principios de Yogyakarta Plus 10" deiturarekin. Zoritxarrez ordea, gaur egun printzipio hauek ez daude tratatu bakar batean bilduta eta horregatik edukiak ez dira lotesleak estatuentzat. Sortzaileen helburua zen printzipioak edozein herrialderen ordenamendu juridikoan txertatzea eta estatu bakoitzak dituen arau gorenekin parekatzea.

Nazio Batuek berriazko jarrera hartu dute LGTBI arloari buruz. 2008ko abenduan, giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko Adierazpena eman zuen¹³, zeinean Giza Eskubideen unibertsaltasuna berretsi eta LGTBI pertsonen eskubideen urraketa gaitzetsi zen, bai eta estatuei halakoak ikertzeko eskatu ere.

NBEren Giza Eskubideen Kontseiluak, 2011n onetsitako 17/19 Ebazpenean¹⁴, lehen aldiz onartu zituen LGTBI kolektiboaren eskubideak, eta adierazpen formal bat egin zuen sexu orientazio eta genero identitate arrazoiengatik munduko edozein tokitan egindako indarkeria eta diskriminazio ekintzak gaitzesteko. Ebazpen horretan, Kontseiluak

¹² Yogyakarta Printzipioak, Geneva, 2007ko martxoak 26a. <https://www.refworld.org/legal/resolution/icjurists/2007/en/58135>

¹³ Nazio Batuen adierazpena sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa, 2008ko abenduak 18a. <https://www.ohchr.org/es/sexual-orientation-and-gender-identity/united-nations-resolutions-sexual-orientation-gender-identity-and-sex-characteristics>

¹⁴Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak, (2011ko ekaina). 17/19 Ebazpena <https://www.pgaction.org/inclusion/es/background/united-nations.html>

berriazko eskaera egin zion NBEren Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoari, dokumenta zitzan mundu osoan sexu orientazioaren eta genero identitatearen harira diskriminatzaileak diren legeak eta indarkeriazko ekintzak eta proposa zitzan horren aurrean hartu beharreko neurriak.

Ondoren 2012an, NBE-k «Nacidos libres e iguales» (Aske eta berdin jaioak) kanpainia¹⁵ jarri zuen martxan; eta eskuliburu bat¹⁶ ere argitaratu zuen. Hartan Estatuak LGTBI pertsonen giza eskubideak babesteko dituzten bost betebeharrak ezartzen dira.

Azkenik, 2015ean, Giza Eskubideen Goi Komisarioak txosten bat egin zuen LGTBI gaiari buruz¹⁷. Hartan emandako gomendioak inspirazio iturri izan dira estatu kide askok gai horri buruz egindako politika eta legeetan.

4. EUROPAKO ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA

Europa mailan ere aurrerapausoak eman dira pertsona transexualen eskubideak bermatzeko, eta zer esanik ez guraso haurdunen filiazio determinazioari buruz. Jarraian ikusiko dugun moduan, inplizituki aipatu du eskubide hau bermatzeko beharra Europar Batasunak.

4.1 Europako marko juridikoa

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena¹⁸ Europako Kontseiluak argitaratutako akordio bat da eta pertsonari lotutako oinarrizko eskubide eta askatasunen zerrenda bat ezartzen du, 2.artikulutik 18.artikulura bitarte. 8. artikuluan bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidea jasotzen da, eta 14.

¹⁵ Nazio Batuen Erakundea. Campaña “Nacidos libres e iguales”. <https://www.unfe.org/es>

¹⁶ Nazio Batuen Erakundea. “Nacidos libres e iguales “ eskuliburua. [https://www.ohchr.org/sites/default/files/2023-02/Born Free and Equal SP web.pdf](https://www.ohchr.org/sites/default/files/2023-02/Born%20Free%20and%20Equal%20SP%20web.pdf)

¹⁷ Giza Eskubideen Goi Komisarioa, (2015eko iraila). Lesbianen, gayen, bisexualen, transen eta intersexen aurkako indarkeria eta diskriminazioa amaitzeari buruzko txostena. [https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Discrimination/Joint LGBTI Statement ES.PDF](https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Discrimination/Joint%20LGBTI%20Statement%20ES.PDF)

¹⁸ Oinarrizko Eskubideen Europako Auzitegia, (1950). Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena. https://www.echr.coe.int/documents/d/echr/convention_ENG

artikuluak, berriz, diskriminazioa debekatu da. Artikulu guzti horien artean kolektibo transexualak gehien aipatu duena 8. artikulua da, justizia eta berdintasuna aldarrikatuz.

Europako Parlamentua aitzindaria izan zen, 1989ko irailaren 12an Ebazpena¹⁹ eman baitzuen transexualenganako diskriminazioari buruz; horretan, gizarteko arazoa dela onartzen da eta estatu kideei eskatu zaie pertsona horien eskubideak, prestazioak, tratamenduak, laneko berdintasuna, identitate ziurtapena eta abar bermatzeko. Gerora, funtsezko beste ebazpen batzuk eman zituen. 2011ko irailean, Europako Parlamentuak bizipen transidentitarioak ez psikiatrizatze eskatu zuen eta 2012ko maiatzaren 24koa, lesbianen eta gayen eskubide berdintasunari buruzkoa²⁰ eta diskriminazioaren eta homofobiaren aurkako borrokaren gainekoak; horietan, estatu kide guztiei eskatu zaie tratu berdintasunaren printzipioaren aplikazioa zaindu dezatela xedapen juridiko eta administratibo guztietan, pertsonen sexu orientazioa edozein delarik ere.

2011ko iraileko ebazpenaren ondoren, Europako Parlamentuak berriro ekin zion horri, eta ebazpen honekin²¹ kritikatu zuen oraindik ere estatu kide batzuek kontsideratzen dutela transexualak gaixorik daudela. Horregatik eskatu zion OMERi genero- nahasmenduak kentzea nahasmendu mentalen eta portaera-nahasmenduen zerrendatetik. Gainera, estatu kideei gomendatu zion berrikusi zitzatela generoaren aintzatespen juridikorako prozedurak.

2014ko otsailaren 4an, Europako Parlamentuak Lunacek txostena²² onetsi zuen, gehiengoaren erabakiz; txosten hori ibilbide orria da, sexu orientazioagatiko edo genero- edo sexu-identitateagatiko diskriminazioarekin amaitzeko. Horren onespena mugari garrantzitsua da Europar LGTBI eskubideen aldeko borrokan, eta estatuetako legeriek

¹⁹ Europako Gai Juridikoetako Batzordea, (1989ko irailak 29). Resolution 1117, on the condition of transsexuals.

<https://assembly.coe.int/nw/xml/XRef/Xref-XML2HTML-en.asp?fileid=15151&lang=en#>

²⁰ Europako Parlamentua. (2012ko maiatzaren 24koa). Informe sobre la hoja de ruta de la UE contra la homofobia y la discriminación por motivos de orientación sexual e identidad de género. https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-7-2014-0009_ES.html#_section1

²¹ Europako Parlamentuaren 2012ko abenduaren 12ko Ebazpena, Oinarriko Eskubideek Europar Batasunean duten egoerari buruzkoa

²² Europar Batasuneko Askatasun Zibil, Justizia eta Barne Arazoetarako Batzordea. (2014ko urtarrilaren 8koa). Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko homofobiaren eta diskriminazioaren aurkako EBren ibilbide-orriari buruzko txostena. https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-7-2014-0009_ES.html#_section1

errespetatu behar dituzten gidalerroak zehazten ditu. Oso eztabaidagarria²³ izan zen txosten honek Europako Batzordearen, estatu kideen eta sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzea helburu duten erakundeen jarduerak bateratuko dituzten gidalerroak ezartzeko beharra aipatzen du. Zioen azalpenean ohartarazten du Europako Parlamentuak eta zenbait estatu kidek 2011z geroztik eskatu dutela tresna hori. Txosten honetako xedapenek helburu bakarra dute: sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako edozein desberdintasun edo diskriminazio ezabatzea, LGBTI kolektiboaren (orain LGBTIQ+) eskubideak eta interesak babesten saiatuz. Xedapen orokorren artean, Batzordeak, estatu kideek eta gainerako agentziek enpleguan, osasun-laguntzan, hezkuntzan eta ondasun eta zerbitzuetarako irispidean diskriminaziorik ezari dagokionez jarraitu beharreko bidea finkatzen dute. Pertsona trans eta intersexualentzako xedapen espezifikoek buruzko atal bat ere planteatzen du, honako gai hauek jorratuz: familia, adierazpen- eta bilera-askatasuna, gorroto- eta asilo-delituak.

Aipatutako lege, txosten eta ebazpenez gain, NBE-ak landutako askotariko informeetan artean, azpimarratu behar da informe bat, “Lesbian, gay, bisexual, transgender and intersex persons information series”²⁴ deiturikoa. Informe honek lotura zuzena du lan honetan landuko den gizon haurdunen errealitate juridikoaren. Informe honek dio sexu eta ugalketa eskubidea pertsona orori dagokion oinarritzko eskubidea dela. Bestalde, aipatutako informeak gida bat garatzen du sexu eta ugalketarekin zerikusia duten debeku eta eskubideei buruz.

Ildo beretik, garrantzitsua da ere aipatzea NBE-ko 2018ko 2239 Erresoluzioa²⁵. Lehenengo aldia da erakunde honek sexu bereko harremanak eta beste LGTB familiaz mintzatzen dela. Erresoluzio horren 4.6 artikuluan, gomendio oso garrantzitsuak ezartzen ditu guraso transexualen eta hauen umeen eskubideak sendotzeko. Ez hori bakarrik,

²³ Moraga, I. (2014ko otsailak 5a). *El diario*
https://www.eldiario.es/politica/parlamento-europeo-ppe-mayor-oreja-informe-lunacek_1_5039900.html

²⁴ Nazio Batuen Erakundea (2020). Lesbian, gay, bisexual, transgender and intersex persons. https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Women/WRGS/SexualHealth/INFO_LG_TG_WEB.pdf

²⁵ Europako Kontseilua (2018ko urriak 10). 2239 Erresoluzioa “Private and family life: achieving equality regardless of sexual orientation”
<https://assembly.coe.int/nw/xml/XRef/Xref-XML2HTML-en.asp?fileid=25166>

estatu kideei eskatzen die guraso transexualen genero identitatea aitortzea ere jaiotza-ziurtagirian. Gomendio honen helburua pribatutasuna eta segurtasuna bermatzea da, guraso eta umeen aurka eman daitezkeen ekintza diskriminatzaile ororen aurka.

4. 2 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia gizon trans haurdunen filiazioari buruz

Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena abiapuntutzat, etengabe ari da lanean testuan jasotako arauak egungo gizarte eta inguruabarretara egokitzeko. Azken batean, kontutan izan behar da 1950.urtean sortutako testu bat dela Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, eta garai hortako eta gaur egungo gizarteak garatu eta aldatu egin direla, eta horregatik auzitegiak adi egon behar du, hitzarmenean jasotzen diren eskubideak bermatzeko helburuarekin.

Familia instituzio juridiko oso garrantzutsua da herrialde guztietan eta estatu bakoitzeko barne ordenamenduek arautzen du. Esan genezake familiako legeen eta aita edo ama izatearen arteko lotura garrantzitsua dela mundu mailan. Hala ere, familia baten ideia berri horrek zerikusi handia du gure ustez ondo edo gaizki dagoenarekin, eta asko aldatzen da herrialdearen eta kulturaren arabera, eta horrek eragina du kontzeptu horiei buruz egoera desberdinetan pentsatzen dugun moduan.

Familia-eredu berrien barruan, guraso transexualak osatzen dituzten familiak aurki ditzazkegu, zehazki erditzen duten gizon transexualetan zentratuko gara.

Gaur egun, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiek jurisprudentzia eta doktrina aplikagarriak sortu dituzte. Halaber, Europako Kontseiluaren gomendioek eta Europako Parlamentuaren ebazpenek nazioarteko arau-esparru bat sortu dute, trans kolektiboari babesa eta ikusgarritasuna ematen saiatzeko. Hala ere, herrialde batzuetan transexualitatea eta homosexualitatea jazartzen dira oraindik.

2023ko apirilak 4ean Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (aurrerantzean GEEA), bi epai eman zituen trans gurasoengandik jaiotako seme-alabak Erregistro Zibilean inskribatzeari buruz.

O.H and G.H vs Germany

OH vs Alemania sententzian²⁶ bi eskatzaile daude: alde batetik O.H (alderdi demandatzailea), genital femeninoekin jaioa baina Erregistro zibilean gizonezko bezala 2011. urtetik (jaiotzako genitalak mantenduz); eta G.H. semea, 2013. urtean jaioa. O. H-k bere sexu-aipamena zuzendu eta denbora batera, bere hormona-lotura eten zuen, testosterona esaterako, eta emankorra izan zen berriro. Horrela, 2013an haurdun geratu eta haur bat izan zuen emaile baten espermaren laguntzaz.

O. H.-k aita gisa inskribatu nahi zuen Erregistro Zibilean, baina Alemaniako agintariek eta jurisdikzioek uko egin zioten borondate horri, eta ama gisa inskribatu zuten azkenean.

Aipatutako epaiean demandatzaileek alegatu zuten autoritateen ezezkoa Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua urraketa dela eta bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidea urratzen duela “ama” bezala inskribatze horrek, baina GEEA-ak ez zien arrazoia eman, argudio sorta bat emanaz.

Lehenik eta behin, GEEA-k estatu kideek duten balioespen-marjinari egiten dio erreferentzia. 8.artikuluak barnebiltzen dituen betebeharrari dagokionez, estatu kideek artikulua hori balioesteko marjina dute eta marjina hori zabala da, estatuak oreka bat mantendu behar duela artikuluan aipatzen den eskubideen eta estatuak berak dituen interes publiko eta pribatuen artean. Modu sinpleago batean esanda, estatu kideen eskumena da erabakitzea zein egitate diren 8.artikulu horren aurkakoak, eta ondorioz, estatuei dagokie erabakitzea ere gizon haurdunen filiazio determinazioa, eta ea GEEA berak emandako gomendioak jarraitzen dituzten ala ez.

Gainera, auzitegiak azpimarratu zuen estatu kideen artean ez dagoela adostasunik gurasoetako bat transexuala denean ea nola agertu behar duen erregistro zibilean. Gaur egun bost estatuk aurreikusi dute aitortutako sexu berria agertu behar dela, baina gehienek jarraitzen dute haur bat erditu duen pertsona bere ama bezala izendatzen, ernaltzen lagundu duen pertsona bere espermarekin aitzat har dadin ahalbidetuz.

²⁶ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpena, 2023ko apirila. O.H and G.H. vs. Germany (53568/18 and 54741/18).

Bestetik, auzitegiak adierazi zuen Alemaniako agintariek balantzean jarri behar izan zituztela interes publiko eta pribatuak eta bestelako eskubideak: demandatzaileen eskubideak, seme-alabaren oinarrizko eskubideak eta interesak, hau da, seme-alabatasuna ezagutzeko eskubidea eta gurasoekin modu egonkorrean lotuta egoteko interesa, eta, azkenik, interes publikoa, ordenamendu juridikoaren koherentzia eta Erregistro Zibilen zehaztasunean oinarrituta. Auzitegiak gogorarazi zuen, gainera, adingabearen interes gorenak izan behar duela beti lehentasuna.

Auzitegiaren arabera, aztertutako bi kasuetan Alemaniako jurisdikzioek bidezko oreka gorde zuten gurasoen eskubideen, seme-alaben interesen eta haien ongizateari eta interes publikoei buruzko kontsiderazioen artean, eta ondorioz gizon haurdun bat "aita" gisa ez uztea erregistratzen ez dela kontsideratzen 8.artikuluaren urraketa.

5. GIZON TRANSEXUAL HAURDUNEN FILIAZIOA ZUZENBIDE KONPARATUAN

GEEak ez du inolako erantzunik eman gizon haurdunen filiazioaren inguruan eta estatuei erabakitzeke marjina utzi die. Horren ondorioz, zenbait herrialde gai honi buruzko arauak inplementatu dituzte. Neurri hauek mota askotarikoak dira, Suediako modelotik hasi eta Ontario edo Ingalaterrako eredura igarota. Herrialde bakoitzak estrategia desberdin bat erabili du, amatasuna eta aitatasuna determinatzeko betikoa aruak aplikatu dituzte zenbait kasutan, eta beste zenbaitetan genero konnotaziorik gabeko terminoak ezarri dituzte, "aita" eta "ama" erabili beharrean.

5.1 Suediako eredia

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, suediar lege berri batek aitortzen die guraso diren trans pertsoneri legez aitortuta duten genero-identitatea semearen edo alabaren agirietan. Horrela, erditzen duten trans gizonak "aita" bezala izendatzen dira.

Suediako legea lehena da European trans aitatasuna hain argi aitortzen, eta horrela aplikatzen du Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak egindako eskaria 2239 erresoluzioan²⁷, transen aitatasuna genero-identitatearen arabera dokumentatzeko.

²⁷ Europako Kontseilua (2018ko urriak 10). 2239 Erresoluzioa "Private and family life: achieving equality regardless of sexual orientation"
<https://assembly.coe.int/nw/xml/XRef/Xref-XML2HTML-en.asp?fileid=25166>

Lege berritzaile honen prozesuari dagokionez, gizabanakoen eta gizarte zibileko erakundeen eskaerei aurre eginez, 1949ko Suediako Haur eta Gurasoen Kodea erreformatu zen 2018an, legezko trans guraso estatusa arautzeko. Erreforma horrek, trans gurasoak legezko generoaren arabera erregistratzea aurreikusi zuen eta horrek aurrerapauso handi bat suposatu zuen kolektiboaren eskubideak bermatze aldera. Daniela Alaattinoğluren eta Alice Margariaren hitzetan²⁸, Suediako aitatasunari buruzko legeak molde guztiekin hautsi du. Legeak, bere testuinguruak eta sortu dituen eztabaidek balio behar dute beste herrialde batzuei irakasteko. Ez hori bakarrik, gurasotasuna zer den birplanteatu behar dela diote eta egoerara egokituko den erregulazio bat bilatu behar da.

Zoritxarrez, aurrerapen orok izaten ditu oztopoak bidean. Suediako kasuan, Suediako Zerga Agentziak, zeina Erregistro Zibilaz arduratzen den, trans gurasoak beren legez ezarritako generoaren arabera erregistratzeari uko egin zion. Horren ordez, Zerga Agentzia haurra izaten zuen pertsona automatikoki "ama" gisa erregistratzen hasi zen, eta horrela gizon trans bat erregistroan "gizon" legezko generoz eta aldi berean "ama" –ren guraso estatusarekin izendatzeko aukera zegoen.

Kontradikzio erregistral horren inguruko lehen kasu errealak jarri ziren mahai gainean, eta erabakigarria izan zen Suediako ordenamenduaren etorkizunerako. Lehen kasuan, demandatzaileak eskatu zuen erregistroan "ama" izendatu beharrean "aita" gisa erregistratzea. Argudiatzen zuen inkongruentzia bat zegoela alde batetik bere genero maskulinoa eta itxura fisiko, eta bestetik, erregistroan "ama" bezala agertzearen artean. Gainera horrek egoera desoroak sorrarazten zizkion eskatzaileari; esate baterako, funtzionario publikoekin izandako bileretan, maiz zalantzan jartzen zen eskatzailearen familia-egoera. Baita ere, argudiatzen zuen "ama" gisa erregistratzeak urratu egiten zituela bere eta bere semearen bizitza pribatua eta osotasun pertsonalerako eskubidea, arriskuan jarriz haien familia harremana eta kanpora begira eguneroko bizitzan xehetasun intimoak azalratzea behartuta ikusten zuen bere burua. Bukatzeko, erregistro okerra ere trans pertsonen aurkako diskriminazio mota bat zela alegatu zuen.

Honen aurka, Zerga Agentziak alegatu zuen "ama" bezala inskribatzea erditu izanean oinarritzen zela. Baieztapen horren oinarri juridikoa eta printzipio aplikagarria *mater*

²⁸ Alaattinoğlu, D., eta Margaria, A. (2023). Trans parents and the gendered law: Critical reflections on the Swedish regulation. *International Journal of Constitutional Law*, 21(2), 603-624. <https://doi.org/10.1093/icon/moad056>

semper certa est zen ("ama beti da ezaguna"), haurdunaldiak legezko amatasuna determinatzen duela esan nahi baitu. Zerga Agentziaren ustez, printzipio horrek esan nahi zuen "erditzen duen pertsona erregistro zibilean inskribatuko dela ama gisa, sexua edozein dela ere", eta, beraz, ez dago inolako araurik esaten duena erditzen duen pertsonak emakume izan behar duela, ezta haur baten amak emakume izan behar duela ere. Horrez gain, Zerga Agentziak gaineratu zuen eskatzailea "aita" gisa erregistratzeak esan nahiko lukeela erroldan haurrak bi aita eta ama bat ere ez lituzkeela izango, eta egoera horrek ez lukeela Suediako zuzenbidearen babesik izango. Beraz, Zerga Agentziak onartu zuen, legez, seme-alabek ama bat eta aita bat izan behar zituztela, edo gutxienez, dirudienez, ama bat.

Egoera honen aurrean arazo nagusia zen 1949ko Haur eta Gurasoen Kodeak ez zuela zehazten nola egin behar zen erregistroa. Horregatik, lehen Auzialdiko Auzitegi Administratiboak onartu zuen 1949ko Haur eta Gurasoen Kodeak ez zuela inolako xedapenik jasotzen legezko aitatasuna zehazteari buruz. Lege-hutsune bat zegoela alegia. Auzitegiak kontsideratu zuen legea zentzuz eta errespetuz aplikatu beharra zegoela, Suediako zuzenbidearekin eta nazioarteko giza eskubideekiko Suediako konpromisoekin bat etorriz. Auzitegiak nabarmendu zuen ez zela interpretatu behar eskura dagoen lege-hutsunea pertsonen kalterako.

Kasu honen baitan Auzitegiak hainbat eskubide eta interes identifikatu zituen. GEEA-aren jurisprudentziari erreferentzia eginez, kontsideratu zuen bizitza pribatua eta familia errespetatzeko eskubideak (GEEA 8.artikulua) bat egiten duela sexu-erregistroan egindako aldaketak guztiz onartzeko. Gainera, aipatu zuen interes publikokoa dela erregistro zibilean informazio zuzena agertzea eta kasu honetan erregistroan "aita" bezala agertzeak ez zuela informazio okerra ematen.

Gainera, kontuan hartzekoa zen eskatzailearen haurraren egoera. Auzitegiaren arabera, haurraren interes gorena bermatu behar zen, 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 3. eta 4. artikuluek ezarritakoaren arabera. Auzitegiak ondorioztatu zuen zentzuzkoena zela eskatzailea aita gisa inskribatzea, ez baitzen haurraren interesen kalterako.

Azkenean, epaitegiak esan zuen Zerga Agentziak erregistroan zuen praktika aldatu behar zuela. Erabaki hori apelatu zuen zerga agentziak baina bigarren instantziak ere erabaki berdina berretsi zuen.

Gisa berean, beste kasu erreal bat plazaratu zen. Bigarren kasu hau gizon tras bati zegokion (eskatzaile nagusia), bere semea (bigarren eskatzailea) erditu baitzuen legezko generoa aldatu aurretik. Eskatzaileak trantsizioaren ondoren "aita" bezala erregistratzea eskatu zuen baina Zerga Agentziak "ama" bezala erregistratu zuen.

Erregistro horrek, eskatzailearen arabera, hainbat arazo eta nahasmendu sortu zituen semearekin zuen harremanean eta baita ere adibidez, ikastetxearekin, farmaziekin, osasun-sistemarekin eta beste agintari batzuekin harremanetan jartzean. Lehen kasuaren antzeko argudioetan oinarriturik, eskatzaile nagusiak argudiatu zuen "ama" gisa erregistratuta egoteak urratu egiten duela bere eta bere semearen bizitza pribatua eta familiakoa errespetatzeko eskubidea (GEEH 8.artikulua). Hala ere, Zerga Agentziak ezetsi egin zituen eskatzailearen uzi guztiak, eta berretsi egin zuen lehen kasuan izandako jarrera.

Lehen Auzialdiko Administrazio Epaitegiak ondorioztatu zuen eskatzaile nagusia bigarren eskatzailearen "aita" gisa inskribatu behar zela, honako arrazoi hauengatik: Eskatzailea "ama" izendatzeak bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea (GEEHren 8. artikulua) eta diskriminazio ezaren eskubidea (GEEHren 14. artikulua) urratuko luke. Lehen kasuarekin alderatuz gero, Auzitegia are esplizituagoa izan zen: A-k zentzu biologikoan erditu zuen B, bere legezko generoa aldatu baino lehen. Hala ere, A-ri legeak aitortzen dion genero-errekonozimendurako eskubideak eta B haurra izanik legeak babesteko duen betebeharrak pisu juridiko handiagoa dute, seme-alaba bakoitzari "ama biologiko" bat erregistratzeko behar publikoarekin alderatuta.

Azken epaiak, beraz, Suediako zerga-agintarientzako betebeharra sortu zuen, eskatzailea bere semearen "aita" gisa aitortzeko, bere legezko generoarekin bat etorriz.

Aurreko bi kasuak alderatuz gero, orokorrean epaitegiak arrazoibide juridiko antzekoak erabiltzen ditu bietan. Auzitegiak interes publikoaren inguruan egiten duen interpretazioan dago gakoa. Auzitegiak, lehenengo kasuan, ez zuen ikusi gatazkarik interes publikoen eta partikularren artean (erregistroa zuzena baitzen); bigarrenean, berriz, gatazka hori sortu zen (amarik ez baitzegoen). Hala ere, lehen esan bezala, eskubide indibidualak gailendu ziren. Kasuak eta emaitzak garrantzitsuak izan ziren, gainera, Suediako eztabaida juridiko-politiko bati ekiteko, trans pertsonen gurasoen erregistroari eta arazoa argituko zuen legeriaren beharrari buruz.

Laburbilduz, Europako Transexualen eta ez-binarioen elkarte sareak begi onez ikusten du lege berria Europarako oinarri-urratzaile gisa, baina kritiko jarraitzen du Suediako lege berrian aitatasun-presuntzioa ez dela automatikoki aplikatzen guraso transexual bat tartean dagoen bikoteentzat. Horrela, trans gizonek zis gizonek baino miaketa handiagoa jasateko arriskua dute, ez baitute zertan frogatu lotura biologikorik beren bikotekideak erditzen duen haur batekin, aitatzat hartuak izateko²⁹.

5.2 Ontario, Israel, Ingalaterra, beste alternatiba juridikoak

Suediatik harago joanda, trans gurasoei arauketa desberdina aplikatzen dieten beste herrialde batzuk daude. Beste alternatiba horiek “*Degender*” eta “*Misaligment*” izeneko bi kontzeptu dira.³⁰

Guraso estatusari generoa banatzeko alternatibari dagokionez (“*degender*”), Ontariok (Kanada) 2016 an erabaki zuen guraso guztiak “*parents*” (guraso) izendatzea. Lege berriaren helburua dibertsitatea sustatzea zen, generoari egindako erreferentziak eta presuntzioak ekidinez. Horren ordez, guraso kontzeptua zabaldu nahi izan zuten. Honi esker, suposatzen da ez direla emango egoerak non genero-identitatea eta guraso errekonozimendua ez datozen bat, guraso zisgenero eta transexualak berdintasunez tratatuz. Hasiera batean, aukera honek lortu zuen trans gurasoek euren genero-identitateko eta bizitza pertsonaleko datuak eman behar ez izatea, egoera deserosoak alde batera utziz.

Israelgo sistema juridikoak antzeko bide bat hartu zuen, eta 2021eko maiatzaz geroztik, epai baten ondoren, guraso transak “*parent*” bezala izendatuak izango dira, “ama” eta “aita” terminoak alde batera utzita³¹. Horrela, Israelen haur bat erditzen duten gizon transek beren legezko generoa mantendu dezakete erregistroan, baina terminologia neutroa erabiltzeko obligazioa izango dute guraso estatusari dagokionean. Aldiz, Genero

²⁹ Alaattinoğlu, D., eta Margaria, A. (2023). Trans parents and the gendered law: Critical reflections on the Swedish regulation. *International Journal of Constitutional Law*, 21(2), 603-624. <https://doi.org/10.1093/icon/moad056>

³⁰ Alaattinoğlu, D., eta Margaria, A. (2023). Trans parents and the gendered law: Critical reflections on the Swedish regulation. *International Journal of Constitutional Law*, 21(2), 603-624. <https://doi.org/10.1093/icon/moad056>

³¹ Parsons, V. (2021eko maiatzak 7). Trans dad wins right to be named ‘parent’ on child’s birth certificate – but not ‘father’. *Pink News*. <https://www.thepinknews.com/2021/05/07/trans-dad-parents-israel-high-court-birth-certificate-legal-gender/>

Egokitzapenerako Batzordera jo behar dute baieztatzeko erditzeak ez duela euren legezko generoa aldatu.

Bigarren alternatiba juridikoa Ingalaterra eta Gales bezalako jurisdikzioek eskainitakoa da. Alternatiba hori generoak lerrokatzean datza, “*Misalignment*” delakoa, eta horren arabera legezko gizon bat ama izan daiteke, eta alderantziz, legezko emakume bat aita izan daiteke. Hauek denek eskaintzen dute nolabaiteko legezko genero-aitorpena pertsona transentzat, baina ez dituzte guraso izateari buruzko xedapenak aldatu trans pertsonen gurasotasun-esperientziak arautzeko. Hortik ondorioztatzen da "ama gizonezkoak" eta "aita emakumezkoak" egon daitezkeela jurisdikzio horien legearen arabera, beti ere mantentzen jarraitzen dituztelarik “ama” eta “aita” ren figurak tradizionalak, familia-eredu berriei edota guraso rol aldaketa bati aukera eman gabe.

Ingalaterran edo Galesen zehazki, haurren jaiotza-agirian beti “ama” bezala agertuko dira erditu duten transexualak. Horren adibide da Freddy McConnell-en kasua, aurretik aipatu dudana bezala. Epaitegiaren esanetan, garrantzitsua da modu konsistente batean agertzea nor den erditu duena. Ez hori bakarrik, Genero Aitorpeneneko Aktuaren arabera, legezko genero aldaketak ez dira kontutan hartu behar guraso transexualen kasuetan, genero estatusa aldatu izanak ez omen duelako guraso estatusa aldatzen. Logika horren arabera beraz, erditzen duena beti, salbuespenik gabe, “ama” izango da.

6. ESPAINIAKO ERREGULAZIOA GIZON TRANSEXUALEN “GURASOTASUNA” DETERMINATZEARI BURUZKOA

Zuzenbide konparatua erreparatu ondoren, jarraian Espainiako erregulazioa aztertzeko unea da. 1978an Konstituzioa onartu zenetik gauzak nabarmen aldatu dira transexualitateari dagokionez. Estatuko lehenengo legea, 3/2007ko martxoaren 15ekoa izan zen, pertsonen sexuari buruzko erregistro- aipamenaren zuzenketa arautzen duena. Lege horrek pertsona transexualen eskubideen arloan Europako herrialde aurreratuena bilakatu zuen Espainia, ebakuntzarik egin gabe NANen izena eta sexua aldatzea ahalbidetzen zuelako. Aldaketa handia izan zen baina Legeak ez zuen norbanakoaren autodeterminazioa onartzen, eta pertsona transexuala zarela onartzeko, txosten psikiatrikoa eramatea derrigorrezkoa zen. 4/2023 legea izan zen hurrena eta honek autodeterminazioa onartzeaz gain gizon haurdunen buruzko lehen aipamenak egin

zituen, baina oraindik ere Kode Zibilean zein Erregistro Zibileko legean kontraesanak eta gizon haurdunen filiazio determinazioan oztopoak daude.

6.1 Espainiako Kode Zibila

Espainiako Kode Zibila³² oinarritzko lege bat da gizon haurdunen filiazioa nola determinatzen den jakiteko. Kode Zibilean bi filiazio mota existitzen dira, filiazio naturala eta adopziozko filiazioa (KZ 108 artk). Filiazio naturalaren oinarria harreman biologikoa da, eta filiazioaren harreman juridiko mota honen barruan ezkontza barruko filiazioa eta ezkontzaz kanpoko filiazioa desberdintzen dira. Laguntza bidezko ugalketa-teknikak ez dira juridikoki hirugarren kategoria kontsideratzen, eta gure ordenamendu juridikoan filiazio naturalaren barruan sartzen dira (*Laguntza bidezko Ugalketa Tekniken Legeko 7, 8, 9 eta 10 art³³*), eta ondoren ezkontzazkoa edo ez determinatuko da ugalketa-teknika aurrera eramaten den momentuan gurasoak ezkondu dauden arabera.

Filiazioa naturalaren determinazioari dagokionez, "amaren" filiazioa erditzearekin determinatuko da. Aitari eta amari dagokienez, errekonozimendua, adostasuna eta laguntzako ernalketa, erregistro-espeditzea eta epai judiziala. Eta ezkontzako aitatasunerako, amarekin ezkontzea. (KZ 113 eta 120 artk, 7, 8, 9 eta 10 Laguntza bidezko ugalketa-teniken legea).

LGTBI filiazio harremanei dagokionean, zenbait berrikuntza ekarri ditu 4/2023 Trans Legeak. Berrikuntza horien artean, aipagarriena Kode Zibilean "*progenitor gestante*" terminoa txertatzea izan da, guraso transexualei erreferentzia egiteko. Kode Zibilaren 120.5 artikulua horrela erredaktatu da:

"La filiación no matrimonial quedará determinada legalmente: ... Respecto de la madre o progenitor gestante, cuando se haga constar su filiación en la inscripción de nacimiento practicada dentro de plazo, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley del Registro Civil".

Oso interesgarria da Quicios Molinak duena esateko gai honetan³⁴. Quicios Molinaren hitzetan, "*progenitor gestante*" esamoldea gehitzen zaio "ama" terminoari, gizon transa izendatzeak suposatzen duen korapiloa nolabait ebazteko; ez zaio ez ama ez aita deituko.

³² Real Decreto de 24 de julio de 1889 por el que se publica el Código Civil. (EAO, 206 zk, 1889ko uztailak 25). [https://www.boe.es/eli/es/rd/1889/07/24/\(1\)/con](https://www.boe.es/eli/es/rd/1889/07/24/(1)/con)

³³ Ley 14/2006, de 26 de mayo, sobre técnicas de reproducción humana asistida. (EAO, 126 zk, 2006ko maiatzak 27). <https://www.boe.es/eli/es/l/2006/05/26/14/con>

³⁴ Quicios Molina, M^a S. (2023). Las relaciones de filiación de personas LGTBI (*Tribuna Cuadernos de Derecho Privado*, (5) , 2-7.

Eta horrela normalizatzen da, legearen bidez, ugalketa-organoak mantentzen dituzten trans gizonen balizko amatasuna.

Berdina gertatzen da Kode Zibilaren 139. Artikuluarekin: *“La madre o progenitor que conste como gestante podrá ejercitar la acción de impugnación de la filiación justificando la suposición del parto o no ser cierta la identidad del hijo”*.

Lehen ama zen seme-alabatasuna aurkaratzeko akzioa egikari zezakeena, erditzearen ustea justifikatuz edo semearen identitatea egiazkoa ez izanez; orain, ama edo guraso haurduna izan daiteke.

Quicios Molinak iruzkin kritiko bat egiten du erditzen diren trans gizonen errealitatea legez islatzeko erabiltzen den legegintza-teknikari buruz, literalki dio “Egokiagoa zatekeen legean xedapen gehigarri bat sartzea, amari edo haurdun dagoen gurasoari buruzko aipamenak egin beharrean eta KZko 120.5, 137.1, 2. paragrafoa eta 139. artikulua aldatu. Horrela, ez dago ahazteko arriskurik”. Baita ere aitortzen du “Legegileak hamargarren xedapen gehigarri berri bat jaso duela Erregistro Zibilaren Legean, espresuki “Terminologia” izenekoa: erregistroko sexu bereko bikoteetan, amari egindako erreferentziak amari edo haurdun dagoen gurasoari egindakotzat hartuko dira, eta aitari egindako erreferentziak, berriz, haurdun ez dagoen aitari edo gurasoari egindakotzat”.

Molinak egindako kritikak arrazoia izan dezake, oraindik Kode Zibilaren “padres” generikoa ez delako erabat desagerrarazi (legegileari ahaztu egin zaio 115. artikulua erreformatzea, adibidez), eta hori, legegintza-teknikaren ikuspegitik, kritikagarria da. Amaren eta aitaren izenek kodean jarraitzen dute, amaren seme-alabatasunaren eta aitaren seme-alabatasunaren arteko bereizketak bezala (baita Erregistro Zibilaren Legean ere), eta horrek esanahi handia du dogmatikoki.

Ez hori bakarrik, kritika juridiko eta tekniko horrez gain, kritika diskrezionalago bat ere egiten du: “Badirudi legegilea ez dela bustitzera ausartu. Batetik bai dirudi gai honi arreta jarri diola eta konponbide bat ematen saiatu dela lehen aipatu ere egiten ez ziren guraso trans haurdunen inguruan. Baina bestetik, antza ez du arrieskatu nahi izan eta askatasuna eman bakoitzari aukeratzeko ea aita, ama edo termino neutro bat nahi duen. Honek erakusten du zuzenbidea agian oraindik ez dagoela prest aita eta amak tradizionaliki izan dituzten rola alde batean uzteko”.

Oso interesgarria da gogoeta hau, terminologia neutro bat txertatetik haratago dioalako. Aita eta ama izateari lotuta dauden estereotipoak aipatzen ditu eta honek sortzen dituen

genero-rolak. Horregatik, gertatu daiteke nahikoa ez izatea termino neutroetara jotzea, oraindik ere muinean genero rolak bultzatzen dituen estereotipoak dihardutelako. Kontu hau sakonago hurrungo atalean aztertuko da.

6.2 Erregistro Zibileko Legea

Kode Zibileko gabeziari, Erregistro Zibileko Legeko³⁵ nahasmendua ere gehitzen zaio. Gogoratu familia instituzioaz mintzatu gareanean aipatu dugula familia tradizionalaren gainbehera gertatu dela eta familia-eredu berriak sortzen ari direla. Hori horrela izanik, familia tradizionalak bat egiten duten heinean jaiotza erregistroan agertzen diren terminoekin (aita eta ama), familia tradizioaletik at daudenek ez dira identifikatzen arau horiekin eta linbo juridiko batean aurkitzen dira.

4/2023ko Trans Lege berria hori bera saiatu da konpontzen, “*progenitor gestante*” termino neutroa ezartzeko aukera zabalduz gizon haurdunen kasuan, baina oraindik ere sexu –erregistroaren arabera gizona den pertsona trans batek ume bat izan eta Erregistro Zibilera jotzen duenean, ezin du “aita” bezala izendatu bere burua.

Oztopo hori Erregistro Zibileko 44.4 artikuluan aurkitzen da. Artikulu honek ez du garbi uzten ea posible den erditu duen gizona aita izendatzea, edo nahitaez ama bezala identifikatu behar den.

“Seme-alabatasuna zehaztuko da, jaiotza-inskripzioaren ondoretarako, lege zibiletan eta lagundutako giza ugalketarako teknikei buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritakoaren arabera.

48. artikuluan aipatutako kasuetan izan ezik, Espainian gertatutako jaiotza-inskripzio orotan nahitaez agerraraziko da amaren seme-alabatasuna, nahiz eta horretarako sarbidea murriztua izango den amak, arrazoi oinarriengatik, hala eskatzen duenean, eta betiere filiazio horretatik eratorritako eskubideak baliatzeari uko egiten dionean. Adierazpena eta aukerako zatia edo arauzko egiaztapena bat ez badatoz, azken hori izango da nagusi.

Semea edo alaba inskribatzeko unean, haurduna ez den aitaren edo amaren seme-alabatasuna jasoko da:”

³⁵ Ley 20/2011, de 21 de julio, del Registro Civil. (EAO, 175 zk, 2011ko uztailak 22).
<https://www.boe.es/eli/es/l/2011/07/21/20/con>

Artikulu honek batetik, aurreuposatzen du haurdun geratu daitezkeen bakarrak “amak”, hau da emakumeak, direla, eta ziurtasunez baieztatzen du jaiotza-inskripzio guztietan agertu behar duela nahitaez “ama” terminoa. Baieztapen horretatik interpretatzen da argi eta garbi gizon trans haurdunak beti “ama” bezala erregistratuko direla Espainian.

Aldi berean hori konpontzeko asmotan, trans lege berriak gizon trans haurdunen kasuetarako irtenbide posible bat proposatu zuen, aurretik aipatutako “progenitor gestante” termino neutroa.

6.3 4/2023 Legea, Transen berdintasun erreal eta efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa

2023ko otsailak 16 an Kongresuak pertsona trans eta LGBTI-ren legea onartu zuen³⁶. Transen berdintasun erreal eta efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko lege honek³⁷ genero autodeterminazioa aitortu zuen, baita adingabeena ere. Horrez gain, despatologizazioan urratsak egin zituen, eta eskubideen aitortza zabaldu ere bai.

Legeak hitzaurrean adierazten duenez, helburu nagusia da pertsona lesbiana, gai, bisexual, trans eta intersexualen (hemendik aurrera LGBTI) eskubideak garatzea eta bermatzea da. Horretarako diskriminazioaren kontrako neurriak bildu ditu. Honen helburu nagusia da Espainiako herritar orok askatasun osoz bizi ahal izatea bermatzea, dena dela orientazio sexuala, identitate sexuala, genero-espresioa, ezaugarri sexualak eta dibertsitate familiarak.

Aipatutako askatasuna bermatzeko, botere publikoen parte-hartzea ezartzen du eta politika publikoak definitzen ditu. Pertsona LGTBI-en eskubideak egiazkoak eta zinezkoak izan daitezen, oztopoak erauzteko beharra azpimarratzen da eta aldeko kondizioak eragiteko neurriak hartuko direla ziurtatzen du legeak.

Modu berean, lehen aipatu dudana bezala, 4/2023 legea indarrean sartzeak Kode Zibilaren eta Erregistro Zibilaren legean aldaketak ekarri zituen filiazioari dagokionez. Kode Zibilean

³⁶ López, Noemí. (2023ko otsailak 16). Aprobada definitivamente la ley trans y LGTBI que permitirá cambiar el sexo legal sin requisitos a partir de los 14 años. *Newtral*. <https://www.newtral.es/aprobada-ley-trans-lgtbi/20230216/>

³⁷ Ley 4/2023, de 28 de febrero, para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI. (EAO, 51 zk, 2023ko martxoak 1). <https://www.boe.es/eli/es/l/2023/02/28/4/con>

eta Erregistro Zibilean oraindik orain gizon haurdunen filiazioa determinatzeko garaian dauden nahasmendu eta oztopoak ikusita, lege trans berriak terminologia neutro bat ezartzea erabaki du, hutsune legal hori konpontzeko helburuarekin.

Horrela, Trans Legeak ekarri duen berrikuntzarik esanguratsuena “progenitor gestante” terminoa izan da, baina praktikan ez du irtenbide esanguratsu bat eman gurasotasun transaren baitan, are gehiago, Erregistro Zibileko legetik ondorioztatu daiteke gizon transak “ama” terminoz izendatzeko obligazioa dutela, eta era berean Kode Zibilean oraindik “padres” generikoa ez da ezabatu, beste hainbeste termino kontraesankorren artean.

Legegileak badirudi nahikoa iruditu zitzaiola “progenitor gestante” terminoa sortzea, baina zer gertatzen da gizon haurdun batek “aita” izendatu nahi badu? Zein arau gailentzen da, Erregistro Zibilekoa “ama” terminoa agertzeko obligazioari buruzkoa, edo Lege Transak erabiltzen duen termino neutroaren erabilera? Galdera hauek airean daude praktikan ez direlako auzitegietara kasu errealak iritsi Horrek ez du esan nahi Espainian ez daudenik haurdun geratu diren gizonak³⁸, baina errealitatea da oraindik gai hau ez dela sakontasunez eztabaidatu ez gizarte mailan eta are gutxiago arlo juridikzionalan.

7. GIZON TRANS HAURDUNENTZAT IRTENBIDE POSIBLEAK

Kode Zibila, Erregistro Zibileko legea eta 4/2023 Trans legea aztertu ondoren, bistan da kontraesan legal bat dagoela Espainia mailan gizon haurdunen filiazio determinazioari buruz. Era berean zuzenbide konparatuan alternatiba juridiko desberdinak eman dira aurrera. Europako jurisprudentziak O.H vs Alemania sententziarekin estatuen eskutan utzi zuen gaiari buruz erabakitzea, nahiz eta horrek kontraesan Europak proposatutako gidalerroa, guraso transexualen filiazio determinazioari buruzkoa.

Zenbait herrialdek, Suediatik hasi eta Ingalaterra bitarte, irtenbide juridiko guztiz aurkakoak hartu dituzte, eta beste batzuek, Espainia bezala, praktikan ez dute kuestio honen inguruko ia aipamenik egin, terminologia aldaketa batzuk salbu.

³⁸ González, Berto. (2021eko uztailak 19). 'Papá gestante': la historia del primer hombre transexual embarazado visible en España. *Shangai*. <https://shangay.com/2021/07/19/papa-gestante-historia-hombre-transexual-embarazado/>,

Horregatik premiazkoa da irtenbide juridiko bat ematea gizon trans haurdunei. Bi irtenbide posible daudela iruditzen zait: batetik, Erregistro Zibileko eta Kode Zibileko terminoak egokitu behar dira. Bestetik, planteatzen dudana da erakunde publiko bat sortzea, pertsona transexualen eta LGTBI kolektiboaren eskubide eta behar legalei erantzun bat emateko.

7.1 Espainiako ordenamenduan gizon haurdunen filiazio determinazio egoki baten premia

Espainiako ordenamendu juridikoan oztopoak eta kontraesanak aurkitzen ditugu, zehazki Kode Zibileko eta Erregistro Zibileko artikulua jakin batzuetan. Gainera eragina izan du nahasmen legal horretan Trans lege berriak.

Trans lege berriak “*progenitor gestante*” terminoa txertatu du Kode Zibileko 120.5, 137.1 eta 139.artikulan, eta horrela erreformulatu ditu artikulua horiek:

- Kode Zibileko 120.artikulua:

“La filiación no matrimonial quedará determinada legalmente:

5.º Respecto de la madre o progenitor gestante, cuando se haga constar su filiación en la inscripción de nacimiento practicada dentro de plazo, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley del Registro Civil”.

- Kode Zibileko 137.1, 2.paragrafoa:

“1. La filiación del padre o progenitor no gestante podrá ser impugnada por el hijo durante el año siguiente a la inscripción de la filiación. Si fuere menor o persona con discapacidad con medidas de apoyo, para impugnarla, el plazo del año se contará desde la mayoría de edad o desde la extinción de las medidas de apoyo.

El ejercicio de la acción, en interés del hijo que sea menor, corresponderá, asimismo, durante el año siguiente a la inscripción de la filiación, a la madre o progenitor gestante que ostente la patria potestad, a su representante legal o al Ministerio Fiscal.”

- Kode Zibileko 139.artikulua

“La madre o progenitor que conste como gestante podrá ejercitar la acción de impugnación de la filiación justificando la suposición del parto o no ser cierta la identidad del hijo”.

Aurretik esan dugu Trans lege berriaren helburu nagusia euren eskubideak bermatzea dela. Alderantziz, artikuluko horiek osotasunean irakurrita gizon haurdunetik integratzaileak izatea lortu beharrean, baztertzailak direla iruditzen zait. Uneoro “ama”-ri erreferentzia egin ondoren “guraso gestante” terminoa txertatzea inklusiboa izan beharrean, kontrako funtzioa betetzen duen inpresioa ematen du. Gizon trans haurdunentzat terminologia berezi bat ezartzeak hauek izaki bitxi baten trataera izatea sustatzen dute, eta lortu nahi denaren aurkakoa lortzen da; gizon haurdunak baztertzeta.

Erregistro Zibilean berriz, 44.4 artikuluan “amaren seme alabatasuna” aipatzen duenean auresuposatzen du “amak” direla haurdun geratzen diren bakarrak. Hori aldatzen badugu eta “amaren seme alabatasuna”-ren ordean “erditu duen pertsonaren seme alabatasuna” erabiltzen bada, erditu duen hori bai “aita” eta baita ere “ama” izatea ahalbidetuko luke. Azken finean helburua da pertsona orori askatasuna ematea bere burua nahi duen eran identifikatzeko.

Aurreko haritik, airean geratzen kuestioa da ea beharrezkoa den “aita” eta “ama” terminoez gain termino neutro bat txertatzea. Euskaraz “guraso” erabili daiteke, eta erdaraz “progenitor gestante”. Kontu honek bere alderdi positiboak eta negatiboak ditu.

Alice Margaria-ren hitzetan, “ikara moral bat sortzen ari da gizon transen praktiken ondorioz. Hauek, euren uaglketa-organoak mantentdu eta haurdun geratzea erabakitzen dute kasu askotan, ugalketa eta generoarekin lotutako nozio oro hautsiz. Emakume eta gizonezkoa izate bezela ulertzen dugun naturaltasun finkoa berraztertzeaz gain, haurdun dauden gizonek aitatasunean sartzeko modu ez-konbentzional bat erakutsi dute, eta, horrela, gaur egungo munduan aita izateak zer esan nahi duen hausnartzera bultzatzen gaituzte. Hausnarketa hori testuinguru legalera ere eramane behar da, zehazkiago, aitatasun juridikoaren determinazioa arautzen duten legeetara. Noski, sortzen diren kuestioak dira; zein guraso-estatus izango du pertsona honek? “Ama”, “aita” edo “guraso” kontsideratu behar dira jaiotza erregistroan?”. Planteatzen den kuestioetako bat da ea legezko gurasotasunari generoa kentzearekin problematika ezabatuko litzakeen (generoan oinarritutako terminologia alde batera uztea alegia), eta hori nahikoa izango litzatekeen familia arloan inklusibitatea eta ekitatea bultzatzeko. Horren erantzuna izateko

beharrezkoa da aztertzea zein abantaila eta disabantaila sortuko lituzkeen “ama” eta “aita” terminoak “guraso” terminoagatik aldatzeak”.

Trans aitatasunaren testuinguruan, irtenbide honek behingoz konponduko luke ea guraso estatusak islatu behar duen jaiotzetiko generoa edo genero identitatea. Gainera, guraso-estatus neutro bat lortzeak genero ez-binaria igarotzen diren gurasoei ere eragingo lieke, eta ez genero maskulino edo femeninoari bakarrik. Irtenbide horrek abantaila estrukturalagoak ere sortuko lituzke, trans aitatasunaren testuingurua gainditzen dutenak. Horrek, zalantzarik gabe, heteronormatibitatearen ahalmen juridiko eta kulturala murrizten lagunduko luke, legeak familia-aniztasun zabala har dezan ahalbidetuko luke, eta, beharbada, sexu bereko bikoteek adopzioa eta laguntza bidezko tekniken bidezko ugalketa eskuratzeko aukera gehiago izateko ezinbesteko itzulera ere izango litzateke.

Abantaila horien esanahia alde batera utzi gabe, oraindik ere zalantzak daude legezko trans gurasotasuna neutro izatera aldatzearekin eta hau nahikoa den lortu nahi den eraldaketara heltzeko. Zaintza-erantzukizunen egituren azpian dauden oinarriak ez badira zalantzan jartzen eta eraldatzen, gurasotasun neutro bat sustatzea estrategia semantiko soil gisa izateko arriskua dago, genero-ordena tradizionalaren muinean dauden nozio eta zaintza-moduetan eragin zehatzik izan gabe. Horregatik helburu nagusia izan behar da zaintza eta gurasotasuna genero-egitura tradizioaletatik aldentzea³⁹, aurrerago sakonduko dugularik zaintzari buruz.

Terminologia neutroa txertatzearen ideiarekin jarraituz, logika bati jarraiki, ez du zentzurik termino berri bat asmatzea ondoren ordenamendu juridiko osoa “ama” eta “aita” terminoak erabiltzean oinarritzen bada. Ordenamendu juridikoa aldatzen den egunean eta “ama” eta “aita” terminoak ezabatu, guraso estatus neutro bat txertatzea logikoagoa izango litzake. Ez hori bakarrik, ama eta aita ordenamendutik ezabatzea posible izango da beti ere egia biologikoaren printzipioa errespetatzen bada. Ez du zentzurik uztea gizon trans haurdunei “aita” bezala erregistratzen, baina ondoren egia biologikoa ez agertzea Erregistroan. Are gehiago egia biologikoa historia klinikoan agertzen denean, Erregistro Zibileko 46.artikuluak agintzen duen moduan.

³⁹

Alaattinoğlu, D., eta Margaria, A. (2023). Trans parents and the gendered law: Critical reflections on the Swedish regulation. *International Journal of Constitutional Law*, 21(2), 603-624. <https://doi.org/10.1093/icon/moad056>

Gerta daiteke hortaz legezko "ama" eta "aita" izateak bat ez egitea egia biologikoarekin, baina beti bi pertsona egotea hurraren zaintzaz arduratuko direnak. Hori hórrela izanik, zenbaterainoko garrantzi semantikoa eman behar zaio planteatuko kuestioari? Akaso ondorio juridikoak ekarriko ditu? Garrantzitsua da egia biologikoa erregistratzea?

Honen haritik, interesgarria da Dean Spaderen proposamena⁴⁰, bide batez egia biologikoa errespetatzen duelako. Berak dio oraindik ere gure gorputzen atalek garenak egiten gaituztela, eta zenbait feminista eta trans aliatuekin kritiko agertzen da, adieraziz feministek eta trans aliatuek batzuetan (askotan konturatu gabe) ideia sexista eta transfoboak bultzatzen dituztela determinismo biologikoak eratzen duen lengoiaia erabiliz. Hau ekiditeko bide bat izan daiteke legean zein gizartean hizkuntza alternatibo bat txertatzea. Horren adibide batzuk izan daitezke: Uteroei, obulutegiei, zakilei, buloiei eta abarri buruz hitz egin dezakegu espezifikotasunez, atal horiei generorik esleitu gabe. "Gorputz maskulinoa", "gorputz femeninoak" edo "gorputz maskulinoak" bezalako gauzak esan beharrean, zuzenago esan nahi duguna esan dezakegu, hala nola "zakildun gorputzak", "uteroak dituzten gorputzak", "obarioak dituzten pertsonak", eta ez dugu uste gorputz atal horiek genero bati dagozkionik. Beste aukera bat izan daiteke legean sarritan erabiltzen den obario, utero edo antzeko terminoak erabili beharrean, "Barne-ugalketa organoak" erabiltzea, uteroei eta antzekoei buruz orokorrean hitz egiteko, "emakumeen ugalketa organoak" deitu gabe. Gure kasura etorrita, "haurdun dauden pertsonak" edo "espermatozoideak sortzen dituzten pertsonak" edo horrelako beste termino batzuk erabil ditzakegu, "arra", "emea" edo "haurdun dauden emakumeak" erabili beharrean, estatus horien ahalduna izateko. Horrela, identifikatutako pertsona guztien hipotesietatik libratzen gara. Horrela, modu honetara erreformatutako lirake: "Haurdun geratu nahi dutenek ez lukete botika hau hartu behar" edo "Esperma sortzen dutenei ohartarazi behar zaie prozedura horrek eragina izan dezakeela ugalkortasunean".

7.2 Pertsona transexualen eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakunde publikoak

Gaur egun badaude erakundeak LGTBI kolektiboaren eskubideak bermatzeaz arduratzen direnak. Edonola ere, ikusita oraindik ez direla gizon haurdunen eskubideak bermatzen, agian zalantzan jarri behar dira hori lortzera zuzenduta dauden erakundeen funtzionamendua. Atal honetan estatu mailan eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten bi erakunde aztertuko ditugu; batetik Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen

⁴⁰ Spade, D. (2011ko otsailak 3a). About Purportedly Gendered Body Parts. <https://www.deanspade.net/2011/02/03/about-purportedly-gendered-body-parts/>

Zuzendaritza Nagusia, eta bestetik, Emakunde. Bi organismo hauen eginkizunak beharrezkoak direla ikusiko dugu, baina aldi berean ez dira nahikoak kasu honetan pertsona transexualen beharrei erantzun egoki eta azkar bat emateko, eta are gutxiago behar horietara egokituko den ordenamendu juridiko bat osatzeko.

7.2.1 Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

Espainiako gobernuko berdintasun ministerioaren⁴¹ barruan kokatzen da zuzendaritza hau. Espainiako gobernuko goi-organo bat da Berdintasun Ministerioa eta bere mende dago Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen Zuzendaritza Nagusia⁴².

Berdintasun Ministerioari dagokio berdintasunaren arloko Gobernuaren politika proposatzea eta betearaztea, bai eta honako hauek ere: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izatea, emakumearen aurkako indarkeria-mota guztiak prebenitzea eta desagerraraztea, eta sexuagatik, arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijio edo ideologiagatik, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, adinagatik, desgaitasunagatik edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik bereizkeria mota oro ezabatzea. Berari dagokio, bereziki, tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko arauak, jarduerak eta neurriak lantzea eta garatzea, batez ere emakumeen eta gizonen artean, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea, eta emakumearen aurkako edozein indarkeria-mota prebenitzea eta desagerraraztea.

Berdintasun Ministerioa da goi-organoa eta zuzendaritza-organoen artean Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estatu Idazkaritza existitzen da eta haren mende daude zuzendaritza-organo desberdinak; horien artean Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen Zuzendaritza Nagusia aurkitzen dugu.

Espainiako LGTBI pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako Zuzendaritza Nagusia Berdintasun Ministerioaren zuzendaritza-organoa da, Berdintasunerako eta

⁴¹ Berdintasun Ministerioa (Espainia). In Wikipedia. 2024ko ekainak 7an hemen eskuragarri: [https://es.wikipedia.org/wiki/Ministerio_de_Igualdad_\(Espa%C3%B1a\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Ministerio_de_Igualdad_(Espa%C3%B1a))

⁴² Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen Zuzendaritza Nagusia. In Wikipedia. 2024ko ekainak 4an hemen eskuragarri: https://es.wikipedia.org/wiki/Direcci%C3%B3n_General_para_la_Igualdad_real_y_efectiva_de_las_personas_LGTBI%2B

Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estatu Idazkaritzari atxikia, eta lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea bermatzeko neurriak bultzatzeko eta garatzeko proposamenaz arduratzen da, bai eta beste identitate eta orientazio batzuez ere, haien askatasun afektibo-sexuala erabat errespetatzen dela ziurtatuz.

Era berean, txostenak eta azterlanak egiteaz arduratzen da tratu-berdintasunerako eskubideari eta pertsonen beren sexu-orientazioagatik, identitateagatik edo genero-adierazpenagatik edo bizitzako edozein eremutako sexu-ezaugarriengatik (hezkuntza, enplegua, adinekoak, transexualak...) diskriminaziorik ez izateko eskubideari eragiten dioten gaitan. Txosten horien artean daude; Errefuxiatuentzako gida azkarra Espainiako LGTBI eskubideei buruz, Jazarpen homofobiko eta transfobiakorik gabeko hezkuntzarako proposamenak, LGBT aniztasunaren kudeaketa sektore publikoan eta pribatuan eta abar.

7.2.2 Emakunde

Emakunde⁴³ Euskal Autonomia Erkidegoko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea helburu duen erakunde ofiziala da. 1981ean, Institutua sortu zenean, helburu bezala ezarri zituen sexuen arteko berdintasuna errazteko bideei bultzatzea, hori bete-betean lortzeko eragozpen izan daitezkeen izatezko eta lege aldeko oztopo guztiak desagertaraztea, eta bereizkeria mota guztiak ezabatzea. 2005ean Legea onartu zen berdintasunaren Legea onartu zenetik hasierako helburu eta erronkak lortutako aurrera pausoei egokitzen joan da, lehentasunetako bat Berdintasunaren Lege horren betetzearen ardura izanik

1/2022 Legea, martxoaren 3koa⁴⁴, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketarako azken xedapenetako lehenak, Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko 2/1988 Legearen⁴⁵ 3.artikuluak aldatu zuen, eta honela idatzita geratu zen Emakunderen eginkizunei dagokionean; Emakunderen eginkizunak 3.artikuluaren arabera:

⁴³ <https://www.emakunde.euskadi.eus/hasiera/>

⁴⁴ Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. (EAO, 74 zk, 2022ko martxoak 28, 40253- 40312 orr.)

⁴⁵ 2/1988 Legea, martxoaren 4 koa. (EAO 45 zk, 1988 martxoaren 4).

“Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoak bultzatzea, aholkatzea, planifikatzea eta ebaluatzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzkoak barne. Zehazki, honako eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Arestian aipatutako helburuak lortzeko gidalerroak lantzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek aplikatu dituzten bultzatzea.

b) Berdintasun-politiken eta autonomia-erkidegoko legeriaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari eta diskriminazioaren aurkako araudiaren betetze-mailari egokitzeari dagokionez.

c) Legeria-proposamenak eta lege-erreformak egitea, bi sexuen arteko benetako berdintasun eraginkorra eragozten edo eragozten duten oztopoak ezabatzeko, bai eta lege hau garatzeko araudia proposatzea ere.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko txostenak eta irizpenak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatzen dituen xedapen orokorrak egiteko prozeduran zehar.

e) Genero-ikuspegia arlo politiko guztietan integratzeko metodoak diseinatzea.

f) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten erakunde, organo eta unitateetako langileen eginkizunei eta gaikuntzari dagokienez, euskal herri-administrazioetako organo eskudunei gutxieneko oinarrizko baldintzak eta baldintza komunak proposatzea.

g) Euskal erakunde publikoekin aholkularitza eta lankidetzak eskaintzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta lehen aipatutako helburuak lortzeko, prestakuntza-planen diseinua barne.

h) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen zereginak bultzatzea eta koordinatzea, bai eta Autonomia Erkidegoko botere publikoen artean beharrezkoak diren koordinazio-neurriak bultzatzea ere, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen

berdintasunean eragina duten programei dagokienez, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne.

i) Emakumeen eta gizonen baldintza, behar eta interes desberdinak aztertzea, bai eta horren ondorioz bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean sortzen diren desberdintasunak ere, eta, bereziki, jardun-arlo guztietan egin beharreko politika zehazteko azterlanak egitea sustatzea.

j) Enpresei eta erakundeei aholkuak eta laguntza-neurriak ematea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako planak, programak eta jarduerak garatzeko.

k) Organo eskudunari proposatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak emateko erakundeen homologazioari aplikatu dakizkiokeen gutxieneko oinarrizko betekizunak eta baldintzak.

l) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei beren eskubideetarako sarbidea bermatzeko zerbitzuak ematea bultzatzea eta proposatzea.

m) Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez uztartzen lagunduko duten zerbitzuak ematea eta egokitzea bultzatzea eta proposatzea.

n) Herritarrak sentsibilizatzea, egokitze jotzen diren sentsibilizazio-, sustapen- eta zabalkunde-jarduerak eta -kanpainak eginez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esanahiari eta garrantziari buruz, eta berdintasunaren arloan lan egiteko beharrari buruz.

o) Elkarte, fundazio eta bestelako ente eta organismoekin harremanak eta partaidetza-bideak ezartzea, baldin eta erakundearen helburuak lortzen laguntzen badute beren helburu edo funtzioengatik.

p) Beste autonomia-erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko antzeko instituzio eta organismoekin harremanak eta parte hartzeko bideak ezartzea”.

Baita ere aldatu egin zen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4.artikulua, eta honela idatzita geratu zen:

“1. Institutuak neurri-plan bat aurkeztuko dio Jaurlaritzari, bi sexuen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra eragozten edo zailtzen duten oztopoak ezabatzeko, Autonomia Erkidegoan aplikatzeko.

2. Era berean, erakundeak txosten bat aurkeztuko dio Jaurlaritzari, Euskadiko emakumearen egoeraren ebaluazioari buruzkoa, eta memoria bat, botere publikoek arlo horretan izan duten jardunari buruzkoa. Txosten horretan, aipatutako planaren helburuen betetze-maila adieraziko da. Txosten hori, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzan estatistikaren arloko eskumena duen organismoarekin lankidetzan egingo da.

3. Gobernu Kontseiluak 1. paragrafoan aipatutako plana onartzeko hartutako erabakian, planaren indarraldia zehaztuko da, bai eta aurreko paragrafoan aipatutako txostena eta memoria Jaurlaritzari noiz aurkeztu behar zaizkion ere “.

Labur esanda, Emakunderen eskumenak dira Emakume eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko ekimenak aurrera eramatea. Hori erdiesteko lege-proposamenak egin ditzazke, erakunde publiko zein elkarteei aholkatu gaiari buruz, txostenak egin edota herritarrak sentsibilizatzeko kanpainiak egin. Baina 1/ 2022 legean ez dago aipamen bat ere LGTBI kolektiboari, zer esanik ez pertsona transexuali buruz. 2022an argitaratutako txostenean⁴⁶ ere ez dago aipamenik. Are gehiago, Emakunderen 2023 berdintasun estregiako dokumentuari⁴⁷ begirada bat bota ondoren, transexual hitza behin agertzen da eta bakarrik emakume transexualei erreferentzia bat egiteko. Berdina gertatzen da LGTBI kolektiboa bilatzen jartzean, LGTBI erreferentzia oro LGTBI kolektiboko emakumeen aurkako diskriminazioak ezabatzeko ekimenak garatzeari eta sexu- eta genero-aniztasuna sustatzeari buruzkoak dira.

Hau ikusita, eta 1/2022 legean oinarrituta, argi geratzen da Emakundek ez duela eskumenik gizon haurdunen filiazio determinazioari erantzun bat emateko. Gainera, ez du aipamenik egiten bere txostenetan transexualitateari eta LGTBI kolektiboari buruz, eta egiten dituen erreferentzia eskasak kolektiboko emakumeari egindakoak dira.

⁴⁶Emakunde (2022). 2022ko Jarduren Memoria. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde_memorias/eu_emakunde/adjuntos/2022.memoria.emakunde.eu.pdf

⁴⁷Emakunde. Estrategia 2030 para la igualdad de hombres y mujeres en la CAE. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_planes/es_def/adjuntos/estrategia_igualdad_2030.pdf

7.2.3 Erakunde publiko independente baten beharra

Ikusi dugu estatu mailan Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eskumena dela gizon haurdunen hutsune eta oztopo legalei aurre egitea, baina praktikan oraindik ez diote konfliktu horri aurre egin. Nahiz eta txosten ugari egiten dituzten pertsona transexualek pairatzen dituzten mota guztietako diskriminazioak gaitzetsiz, eta baita ere kooperatu zuten Berdintasun Ministerioak 4/2023 Trans legea aurrera atera zezan, ez da nahikoa.

Berdintasun Ministerioari⁴⁸ dagokio berdintasunaren arloko Gobernuaren politika proposatzea eta betearaztea, bai eta honako hauek ere: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izatea, emakumearen aurkako indarkeria-mota guztiak prebenitzea eta desagerraraztea, eta sexuagatik, arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijio edo ideologiagatik, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, adinagatik, desgaitasunagatik edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik bereizkeria mota oro ezabatzea. Berari dagokio, bereziki, tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko arauak, jarduerak eta neurriak lantzea eta garatzea, batez ere emakumeen eta gizonen artean, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea, eta emakumearen aurkako edozein indarkeria-mota prebenitzea eta desagerraraztea.

Askotarikoak dira Berdintasun Ministerioaren funtzioak, eta nahiz eta LGTBI kolektiboan zentratuko den erakunde bat duen bere menpe, zaila da tramiteak kolektiboarekin zerikusia duten legeak aurrera ateratzea. Ikusi besterik ez dago trans lege berria aurrera ateratzeko izandako trabak, eta gainera, lege horrek kanpoan utzi ditu beste hainbeste kuestio, adibidez pertsona binarioen eskubideak, eta nola ez guraso transen eskubideak.

Honenbestez, Emakunderen kasuan gertatzen den bezala, estatuko zuzendaritza honen rol nagusia emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzea da. Ondoren, badirudi bigarren plano edo maila batean baita ere bere eginkizuna dela beste kolektibo batzuek arduratzea, hala nola pertsona transexual eta LTGBI kolektiboaren eskubideak.

⁴⁸ Berdintasun Ministeritza <https://www.igualdad.gob.es/ministerio/funciones/>.

Transexualitateen kausa bigarren plano batetik igarota, ezinbestekoa da Estatu mailan eta Euskal autonomia erkidegoan erakunde publiko bat eratzea. Erakunde hori LGBTBI pertsonen eskubideen eta zuzenbidearen adituek osatuko dute. Erakunde hau espresuki kolektibo hauen eskubideak bermatzeaz arduratuko da, eta horrek lagunduko du pertsona hauek pairatzen dituzten hutsune legalak konpontzen.

Euskal autonomia erkidegoan egokia izango litzake Emakunde bezala beste erakunde bat sortzea, LGBTBI kolektiboko eskubideak bermatzea delarik bere funtzioa. Estatu mailan berriz, komeniko litzake ministerio berri bat sortzea. Ministerio honek ez du bakarrik helburu guraso transexualen kasuan ikusitako filiazio determinazioko hutsune legalak konpontzea, baizik eta genero estereotipoak eta horren arabera eraikitzen den gizartea birplanteatzea.

Ez da ahaztu behar Elkarten esfortzua eta lana kolektibo hauen mesedetan; hala nola; “Gehitu”, “Naizen”, “Anitzak” eta beste hainbeste Elkarte. Edonola ere, hauek eremu sozialera mugatzen dira nonbait, eta kolektiboak eta gure kasura itzulita, guraso transexualek, botere legegilearen partaidetza behar dute. Elkarte hauek homofobiaren eta transfobiari aurre egiten diote, baita ere kolektiboko kide zein familiei espazio seguru bat eskaintzen diete, eta hori balioztatu behar da. Baina Zuzenbidearen ikuspuntutik, ez Emakundek ez Elkarte hauek ez dute guraso transexualen filiazioan sortzen ari den problematikari erantzunik ematen. Batetik elkarrekin ez dutelako botere legegilerara sarbide zuzenik, eta bestetik ikusi dugun bezala Emakundek ez duelako eskumenik gai honi buruz, eta nahiz eta batzuetan aipamenak egin, emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna lortzea da bere funtzio nagusia.

7.3 “Amaren” eta “Aitaren” rol tradizionalak zalantzan jarriz

Lehenik eta behin, etengabe terminologiari erreferentzia egiten ari garenez lan honetan, interesgarria da jotzea espainiar hizkuntza zaintzeaz arduratzen den instituziora; hala nola RAE-ra. RAE-k “ama” terminoari konotazio edo esanahi ugari ematen dizkio. Definizio hauetan zentratuko gara:

1. Seme-alaba bat edo gehiago sortu edo erditu dituen emakumea.
2. Emakumea, seme-alabei dagokienez.
3. Ama bati esleitutako ezaugarriak dituen emakumea, batez ere bere izaera babeslea eta afektiboa.
4. Ama lana egiten duen emakumea.

Lehen definizioak “ama” izatea oinarritzen du erdiketan, haurra erditu duena da ama. Bigarrenak berriz, filiazioari egiten dio erreferentzia, eta seme-alabekin sortzen den harreman juridikoari. Azken bi definizioak “ama”-ri lotutako rol tradizionalei egiten die erreferentzia (“ama lana”), eta baita ere lan hori bakarrik emakumeek egiten duenaren presuntzioa.

RAE-k⁴⁹ ematen dituen definizioak biologiarekin lotuta daude, eta horrek bat egiten du erromako iturri juridikoekin. *Mater* terminoa, erromatar iturri juridikoetan ama biologikoaren baliokidea da, berdin dio ezkontuta egon ala ez, baina funtsezkoa kontsideratzen da jaioberriaren estatus juridikoa zehazteko, ulertzen baita hori beti ziburra dela (*mater semper certa est*).

Espainiako iturri juridikoei dagokionez, ez dago legerik “ama” definitzen duenik, “ama” izateak zer suposatzen duen zeharka lege desberdinetatik ondorioztatu dezakegu. “Aita”-ri dagokionez RAE-k honela definitzen du⁵⁰:

1. Seme-alaba bat edo gehiago sortu dituen gizona.
2. Gizonezkoa, seme-alabei dagokienez.
3. Aita bati esleitutako nolokotasunak dituen gizona, bereziki bere izaera babesle eta afektiboa. Bere ikasleentzako aita zen.
4. Aita gisa jarduten duen gizona.

Lehen definizioaren oinarria “aitak” ernalketa-prozesuan parte hartzean datza, eta “ama”-rekin bezala, bigarren definizioak filiazioari egiten dio erreferentzia. Gainontzeko bi esaldiei “aita” izateari lotutako estereotipoak buruz mintzatzen da, kasu honetan “aita” baten ezaugarriak babeslea eta afektiboa izatea dira, amaren ezaugarri berdinak; eta aita gisa bakarrik gizonak jardun ahal duenaren presuntzioa ezartzen du.

Gizartea aldatzen joan den heinean, teknologia berritzaileak agertu dira. Horietako bat laguntza bidezko teknikak izan dira eta oso erabakigarriak izan dira ugalkortasunean. Horregatik errealitatea orain beste bat da; gizon transek euren haurrak erditzen dituzte eta “aita” bezala izendatzeko eskatzen dute jaiotza-erregistroan. Honek eztabaidak piztu ditu,

⁴⁹ Real Academia Española. Madre. In Diccionario de la lengua española. 2024ko maiatzak 30an hemendik berreskuratuta: <https://dle.rae.es/madre>

⁵⁰ Real Academia Española. Padre. In Diccionario de la lengua española. 2024ko maiatzak 30an hemendik berreskuratuta: <https://dle.rae.es/padre>

baina baita ere bultzatu du erreflexionatzea ea zer den gaur egun “ama” eta “aita” izatea, eta zergatik ezin diren “aita” bezala izendatuak izan. Ondorioz, badirudi RAE-k ematen dituen definizioak ez direla nahikoak egungo gurasoak errepresentatzeko.

Aipatu dugu batetik Kode Zibielan eta Erregistro Zibileko legean aldaketak egin behar direla. Bestetik, esan dugu ezinbestekoa dela pertsona transexualen eta LGBTBI kolektiboen eskubideak ordenamendu juridikoan islatuko dituzten erakunde espezializatuak eratzea. Edozelan ere, ez dira nahikoak modifikazio horiek. Pertsona hauen beharrei erantzun juridiko egoki bat erdiesteko, aitatasun eta amatasun kontzeptuak birdefinitu behar dira, eta horietako bakoitzak duen estereotipo edo rol tradizionalatik ihes egin, bestela azaleko partxe semantiko bat izateko arriskua dago.

Ilido beretik, gure gizartean eta kulturaren inposatutako binarismoan oinarritutako genero-estereotipoek guraso transexualen aurkako estigma zabaltzen dute eta pertsona transexualei guraso izateko aukera zaildu. Azken finean gizon transek haurdunaldiarekin lotutako genero-arauak aurkaratzen dituzte eta legalki eta sozialki “normaltzat” kontsideratzen dena hausten dute.

Zoritxarrez oraindik gizon haurdunen errealitateak onarpen kultural oso txikia du. Pentsa dezagun Jones-en hitzetan⁵¹. Berak dio pertsona transak amatasunaren eta aitatasunaren munduan sartzeak doikuntza handia eskatzen duela; izan ere, haien guraso-rolak eta orain arte ezagutzen ditugun rol tradizionalak desberdinak dira, gaur egungo guraso ereduak beharrezkotzat jotzen dutelako "senar eta aita" rol maskulino normatiboa hartzea.

Premisa horretatik, Gete-Alonso eta Calerak⁵² hurrungo galdera hau planteatzen dute: “Zerk eragozten du ofizialki onartzea erditu duen transexuala aita dela? Izen juridikoan hain zorrotza izan behar al du ugalketaren benetako oinarriak? Ba al du zentzu juridikorik amatasuna eta aitatasuna bereizteak?”. Egileek berak diote ez duela zentzurik banaketa horrek, ikusita gaur egun filiazioaren harreman biologiko eta genetikoaren eta harreman juridikoaren artean existitzen den pluralitatearen artean.

⁵¹ Jones, T, Bolger. A, Dune.T, Lynkins.A eta Hawkes.G (2015). *Transgender People’s Experiences in Australia*. Springer. <file:///C:/Users/EUKENE/Downloads/978-3-319-13829-9.pdf>

⁵² Solé Resina, J., Gete-Alonso y Calera, M. (2021). *Actualización del Derecho de Filiación* (p. 1). Tirant lo Blanch.

Agian Zuzenbidea ez dago prest kuestio honi aurre egiteko eta legean islatzeko. Roldán Mesak aurretik esan bezala, agian Zuzenbidea ez dago prest tradizionalki “aitak” eta “amak” izan dituzten rolekin hausteko.

7.3.1 Amatasun eta aitatasun birdefinituz

Denbora luzez amatasunaren kontzeptua hain sinplea eta begi-bistakoa izan zen, non ez baitzen inongo ordenamendutan definitu zer den amatasuna, nor den ama. Inplizituki eta unibertsalki onartzen zen ama dela haurra hazi eta gelditzen duen emakumea, Amatasunaren ondoriozko betebeharrak eta eskubideak garai eta sistema juridikoen arabera eztabaidatu eta alda zitezkeen, baina amaren nortasunak beti ziurra eta eztabaidaezina izan da.

Orduan amatasuna termino simple bat da edo balio sozial edo juridiko sakonago bat dauka?

Ikuspuntu juridiko batetik, amatasuna historikoki (eta gaur egun ere bai) *mater semper certa est*⁵³ paulina maximoaren eraginpean egon da, eta hortik ondorioztatzen da ez dagoela arazorik amatasuna erabakitzeke, erraza baita hori frogatzea (erditzen duen hori da ama, eta hori beti ziurra da) , Pauloren esaldiak aipatzen duen ziurtasunak benetan esan nahi du haurdunaldiaren eta erditzearen egitate zuzen eta zalantzarik gabearen ziurtasuna, aitatasunaren ziurgabetasunaren aurrean. Hortaz amatasuna, *mater semper certa est* printzipioaren arabera, jakina eta ziurra da eta erditzen duen persona horri dagokio.

Ildo beretik, epaitegietara heldu diren kasuak aztertuz gero, McConnell-en kasua adibidez, epaileak azpimarratu zuen amatasuna ulertu behar zela fisikoki eta biologikoki haurdunaldia aurrera eramaten eta erditzen zuen pertsona bezala, pertsona horren legezko generoa kontutan hartu gabe. Horrela, haurdun geratzen diren gizon transak ama bezala kontsideratu behar direla. Horrela dio epaiak⁵⁴: “*Alde material bat dago pertsona baten generoaren eta guraso izatearen artean. "Ama" izatea, orain arte beti emakume izatearekin lotuta egon den bitartean, haurdunaldiaren eta erditzearen prozesu fisiko eta*

⁵³ Rivero Hernández, F. (1997). ¿ Mater semper certa est? Problemas de determinación de la maternidad en el ordenamiento español. *Anuario de Derecho Civil*, 5-96.

⁵⁴ Familia arloko auzitegi nagusiaren eta administrazioarekiko auzien epaitegiaren apelazio-errekurtsoa (Administrazioarekiko auzien epaitegian), 2020ko apirilak 29, 2019/2730, McConnell eta YY Erregistro Orokorren aurka

biologikoa jasaten duen pertsona bati ematen zaion estatusa da. Orain medikoki eta juridikoki posible da pertsona bat, zeinaren generoa legean maskulino gisa berrezagutzen baita, haurdun geratzea eta bere haurra erditzea. Pertsona horren generoa "maskulinoa" den bitartean, bere guraso-estatusa, erditzean duen rol biologikotik datorrena, "amarena" da".

Epailleak amatasuna ugalketa-prozesuan oinarritzen du, eta binariotasunari eusten dio, gizonetzkoak aitak direla eta emakumezkoak amak direla presumituz. Honek ordea, talka egiten du gizon transten nahiarekin, erregistroan gizon bezala erregistratuta daude eta erditu ondoren "aita" terminoa erabili nahi dute.

Epaillearen baieztapen horren arabera, ulertzen da gizon transek "ama" terminoa erabili behar dutela nahiz eta gizona izan, soilik beraiek izan direlako erditu dutenak. Honek sortzen duen zalantzetako bat da; amatasuna erditze-prozesuak definitzen du?

Gaur egun ere, amatasuna printzipio juridiko horren arabera definitzen da. Amatasuna definitzeko modu simple eta biologiko hori zuzena da partzialki. Erditzen duen hori ama izan daiteke kasu gehienetan, baina horrek ez ditu barnebiltzen gizon haurdunen errealitateak. Orain gizon transek euren haurrak erditu ahal dituzte eta erregistroan "aita" izendatzea eskatzen dute. Eskakizun honek hankaz gora jartzen ditu orain arteko sinesmen oro eta baita ere amatasuna eraikitzen duen *mater semper certa est* printzipio juridikoa. Noski egoera honek eztabaidak piztu ditu, baina baita ere bultzatu du erreflexionatzea ea zertan datzan gaur egun amatasuna.

Aitatasuna historikoki *pater est quem nuptiae demonstrant* printzipio juridikoan oinarritu da, zeinaren arabera haurraren legezko aita haurraren amaren senarra baita. Gizarteak asko aldatu badira ere, eta inoiz ikusi gabeko familia aniztasunaren garaian bizi bagara ere, arau horiek indarrean jarraitzen dute, eta definitzen dute zerk egiten dituen legezko ama eta aita.

McConnellen kasua bezalako kasuek ideia hau indartzen dute: haur jaioberri baten zaintzaren arduradun izateko prest dagoen eta gai den pertsona guk "ama" deitzen duguna dela, eta, sexuei buruzko sineste dualisten arabera, norbait legezko aita bihurtzen duena prestazio ekonomikoa dela (zeharkakoa), zaintza-prestazioa (zuzena) baino gehiago.

Beste ikuspuntu bat ematen du Morez-ek⁵⁵; "Aitatasun berriaren" kontzeptuak nabarmentzen du nola aldatu den aita ona izatea gure gizartean. Orain, aita ona izateak janaria eta etxea hornitzeaz gain, seme-alabekin kalitatezko denbora igarotzea ere esan nahi du. Horrek esan nahi du aita on batek orain bere burua ikusten duela emozionalki konektatuta, konprometituta eta aktiboki inplikaturik dagoela egunero seme-alabak zaintzen. Hala ere, aitatasunaren kontzeptu hori aldatzea zaila izan daiteke, guraso asko zaintza-lanak oraindik ere "maskulino" sentitzen diren moduan egiten saiatzen direlako, beren maskulinitasuna mehatxatzen dutela ez sentitzeko. Horren barruan sartzen dira haurrak diziplinatzea, babestea, familiarentzat dirua irabaztea eta arduratsuak izaten irakastea.

7.3.2. Zaintza-eginkizunak erdigunean

Doktrinaren alderdi batek zaintza-erantzukizunak zalantzan jartzeko eta eraldatzeko beharra sumatu du, zaintza-eginkizun hauek hertsiki lotuta daudelako amatasunaren eta aitatasunaren estereotipo zurruneekin. Egile batzuen iritziz, trans gurasoen problematikaren soluzioa izan daiteke zaintzari genero konnotazioa kentzea⁵⁶ Genero-egitura tradizionalatik aldentzea ez da lan erraza, baina bide bat izan daiteke aitatasuna berregituratzea, modu konbentzionaletik hurrunduz eta zaintza erdigunean ezarriz. Trans gizonen haurdunaldia balio handiko aukera izan daiteke gurasotasunaren berregituratze hori hasteko. Euren haurrak erditzean eta euren aita bezala izendatzeak gizon transak zuzenean agente aktibiko bilakatzen dira aitatasunaren sinesmen tradizionalekin hausteko erronkari aurre egiteko, eta are gehiago, zaintza ezaugarri garrantzitsu bat bilakatzeko aitatasunarentzat. Gizon haurdunak biologikoki beren seme-alabei lotuta daude, baina ez konbentzionalki aitatasunaz ulertzen denaren moduan, ez baitzuten esperma bidez ernalketan lagundu, baizik eta gestazioaren parte izan ziren, batzuetan ere obozitoen bidez. Erditzen duen trans gizonaren irudiak ez du bakarrik zalantzan jartzen generoaren izaera ustez egonkor eta finkoa (heteronormatibitatearen oinarrian dagoena), baizik eta baztertu ere egiten du norberaren sexua, genero-identitatea eta ama/aita gisa identifikatzea lerrokatzen direnaren ustea.

⁵⁵ Ángeles, J. C. (2022). La (de) construcción de las relaciones de filiación y paternidad a través de la jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos. *Actualidad jurídica iberoamericana*, (17), 550-575.

⁵⁶ ALAATTINOĞLU, D., ETA MARGARIA, A. (2023). Trans parents and the gendered law: Critical reflections on the Swedish regulation. *International Journal of Constitutional Law*, 21(2), 603-624. <https://doi.org/10.1093/icon/moad056>

Haurra erditzen duten trans gizonak aitatzat onartuak izateko eskaria onartzean, ugalketari eta hazkuntzari buruzko suposizio guztiz sustraituak aurkaratuko lirateke. Horrek esan nahiko luke gizonak, eta are eztabaidagarriagoak diren trans gizonak, zaintzaz arduratzeko gai direla, eta trans gizonak ez direla "amak", zaintza axola bazaie. Zaintzak, beraz, ez luke bakarrik guraso-legeria nominalki aldatu nahi, baizik eta, gainera, zalantzan jarri eta ezegonkortu ere egingo lituzke generoan oinarritutako zaintza-zatiketaren presuntzioak.

Beraz zaintza eta guraso izatea neutralizatzeko helmuga izanik, badaude ere honen alde negatiboa eta arriskutsua ikusten diotena. Finemanek⁵⁷ "ama neutroaren" ideia sortu zuen, AEBetako amentzat lege familiarrak sortzearen ondorio negatiboak adierazteko, batez ere haurren zaintzaren testuinguruan. Argudiatzen zuen famili legeetan generoarekiko hizkuntza neutro batetara aldatzeak berdintasunaren izenean, ez duela amek haurren hazkuntzan duten zeregin berezia aitortzen. Beraz, terminologia aldaketa bat egon daitekela baina praktikan ez, amak direlako familia heterosexualetan haurrak zaintzen jarraitzen dutenak.

Ildo beretik, Daniela Alaattinoğlu* and Alice Margaria ren ustez⁵⁸, gurasotasuna neutro bilakatzea ez da nahikoa, lehenik beharrezkoa da familian eta gizartean, oro har, dauden genero-desorekak zalantzan jartzea. Emakume bati bere generoa lapurtzea baino gehiago, edo sexuan neutroak diren arauen mende jartzea baino gehiago, beren errealitate generikoak debaluatzen dituztenak, zaintzari genero neutro bat lotzeak lortu nahi duena da zaintza genero guztietako pertsonen ardura eta gaitasuna bihurtzea. Beraz, emakumeei ez zaie ama izaera kentzen, baina estatus hori gurasoen esku jartzen da, generoa edozein dela ere. Bitartekaritza-urrats horren bidez bakarrik erdietsiko da zaintza gaur egun kontzeptualizatuta eta antolatuta dagoen moduarekin guztiz haustea. Are gehiago, zaintzaren elementua legezko aitatasunaren parametro potentzial gisa lehen mailara ekarrita, gizon transen haurdunaldiarekin zerikusia duten kasuak oso testuinguru egokiak izan daitezke zaintza ekitatiboak sustatzeko prozesuak pizteko.

⁵⁷ Fineman, M. A. (2019). The neutered mother. In *Language, Symbolism, And Politics* (pp. 169-184). Routledge.

⁵⁸Alaattinoğlu, D., eta Margaria, A. (2023). Trans parents and the gendered law: Critical reflections on the Swedish regulation. *International Journal of Constitutional Law*, 21(2), 603-624. <https://doi.org/10.1093/icon/moad056>

Hari hontatik, oso interesgarria da Alice Margariak Covid pandemiaren ondorioz argitaratu zuen artikulua⁵⁹. Pandemian ama langile gisa izan zuen esperientzia pertsonalean oinarrituta, ekarpen honek gogoeta egiten du legezko aitatasuna birpentsatzeko premiazko beharraz eta balizko bideez. Helburua aitak zaintzaile aktiboago bihurtzea da, familiak politiken bidez eurak suspertuz eta horrela gizonak zaintza-esparruan sartzeko. A Almudena Sevillak Covid pandemiaren ondoren egindako azterlanaren arabera⁶⁰, bi gurasoko familia heterosexual gehienetan, pandemiaren agerraldiak genero-arraila areagotu zuen: haurren zaintza gehigarriaren zama, neurritz kanpo erori zen krisiaren aurretik lehen zaintzaileak zirenen gain, amengan, hain zuzen ere.

Alice Margariak bere beste lan batean⁶¹ adierazi du ez dela behar adina erreparatu historikoki amaren eskubide eta betebeharrak harreman horren ziurtasun biologikoaren ondorioz sortu direla. Era berean, jatorria eta justifikazioa kontuan hartuta, amatasuna semearenganako betebeharrak bihurtu zen, eta aitatasuna, berriz, semearenganako eskubide bihurtu zen (ia eskubide erreala mundu zaharrean; ia erabat egikaritzeko eskubidea duela gutxi arte); eta amatasunaren eskakizunak naturalak baziren, aitatasunak ematen zuen joko juridiko eta soziala borondatezkoagoa zen (ondorio guztiekin kasu batean eta bestean).

⁵⁹ Margaria, A. (2022). When the personal becomes political: Rethinking legal fatherhood. *International Journal of Constitutional Law*, 20(3), 1386-1396.

⁶⁰ SEVILLA, A., & SMITH, S. (2020). Baby steps: The gender division of childcare during the COVID-19 pandemic. *Oxford Review of Economic Policy*, 36(Supplement_1), S169-S186.

⁶¹ Margaria, A. (2020). Trans men giving birth and reflections on fatherhood: what to expect?. *International Journal of Law, Policy and the Family*, 34(3), 225-246.

8. ONDORIOAK

Lan guztian zehar ikusi ahal izan dugun bezala, gizartearen begiradatik gizonak haurdun geratzea oraindik utopia bat kontsideratzen da, eta kasu batzuetan ere etika eta moralaren aurkakoa. Utopia hori bera islatzen du Zuzenbideak, ez baititu aipatu ere egiten errealitate hauek, eta ondorioz pertsona hauek diskriminatuak izaten amaitzen dute. Ondorio desberdinak atera ditut lan honen ondorioz:

- Zuzenbideari dagokionez, beharrezkoa da Espainian lege ferenda gizon trans haurdunen filiazioa determinatuko duena. Nahiz eta oraindik gizon haurdunak nahiko inbisibilizatuak egon, pixkanaka hauen haurdunaldiak errealitate bihurtzen ari dira. Zoritxarrez, behin gizon batek haur bat erditzea lortu duenean, horrek suposatzen duen erronka aintzat hartuta, berriro ere irteera-ahulkira itzultzen da jaiotza-ziurtagirian “ama” gisa agertzen denean. Pertsona hau lehendabizi sexu berreislepenerako prozesu batetik igaron da, ondoren haurdun geratu da gizona izanik, eta hori guztia nahikoa ez balitz bukaeran “ama” bezala identifikatzea derrigortzen du legeak, guztiz legez ezarritako generoa kontraesanez. Epe motzean, premiazkoa da Erregistro Zibileko legea moldatzea eta gizon trans haurdunei askatasuna ematea nahi duten bezala identifikatzeko; ama, aita edo termino neutro bat. Horrez gain ere hizkuntza aldaketa bat beharrezkoa da.
- Informazio okerra duten identifikazio-dokumentuak edukitzea, kontratazio-prozesuan trans pertsona bat identifikatzeko balio dezake, eta diskriminatua izateko arriskua dago. Identifikazio-dokumentuak identifikazio pertsonalarekin edo itxura fisikoarekin bat ez datozenean, edo Poliziarekiko eta beste funtzionario publiko batzuekiko interakzioetan, bidaiatzen dutenean edo eguneroko zereginetan, kalte haundia sortzen dute. Nortasunari buruzko informazio kontraesankorrak egunero bizirauteko ezinbestekoak diren identifikazio-agiri batzuk lortzea zaildu dezake.
- Aldi berean, konturatu naiz ez dagoela erakunde publikorik LGTBI kolektiboko eskubideak bermatzeaz arduratzen dena. Egia da, Espainiako gobernuan LGTB Zuzendaritza Orokorra dagoela eta 4/2023 trans legea aurrera eramaten lagundu duela, baina oraindik ere badira beste hainbeste LGTB errealitate ez direnak araudietan babestuak izan, hala nola, pertsona intersexualak, genero ez bitarrak

edota guraso transak. Horregatik planteatu beharko genuke erakunde bat eratzea errealitate guzti hauek zuzenbidean islatzeaz arduratuko dena.

- Ikara moral bat sortzen dute gizon trans haurdunek. Ikara hori da guraso hauek haurdunaldiaren ohiko iruditik urruntzen direlako eta betidanik definitutako rol "maskulino" eta "femenino"-tik ihes egiten dutelako, aldi berean aitatasuna eta amatasunaren definizioa tradizionalak zalantzan jarriz. Izan ere, esperientzia horiek "jaiotzez emea den" gizon bat dute, berea ez den gaitasun baten jabe dena. Haurdun dauden trans gizonak aitatasunean sartzeko modu ez-konbentzional bat erakusten dute, eta, horrela, hausnarketa berritua sustatzen dute gaur egungo munduan aita izateak zer esan nahi duen. Hausnarketa hori legedira ere zabaltzen da, eta, zuzenbideari dagokio korapilo honi erantzun juriidiko egoki bat ematea.
- Gorputz bakoitzak genero-identitate bat duela naturalizatzen duen testuinguru batean hezi gara, gizonak gorputz jakin bat dute, eta emakumeek beste gorputz zehatz bat. Ideia horiek presio handia eragiten dute gure autopertzepzioan, eta horrek geure gorputza arbuiatzera garamatza, zehazki, beren ezaugarri sexualak arbuiatzera. Eta honen ondorioz existitzen dira pertsona transexualak. Gizarteak ezarritako genero-arauetatik at sentitzen dira, eta askotan molde horietara egokitzeko obligazioa pairatzen dute. Hala ere, nire ikuspuntu pertsonaletik, presio sozialek gure gorputzaren gaineko begiradari eragiten diotela ez da trans pertsonak bakarrik bizi duten zerbait. Zein da desberdintasuna zirugia estetikora jotzen duten pertsonetikiko?

ITURRIAK

Bibliografía

ABELLEIRA, H. (2008). Transexualidades y parentalidad. *Psicoanálisis de las configuraciones vinculares: revista de la Asociación Argentina de Psicología y Psicoterapia de Grupo*, (31), 21-41.

ALAATTINOĞLU, D., ETA MARGARIA, A. (2023). Trans parents and the gendered law: Critical reflections on the Swedish regulation. *International Journal of Constitutional Law*, 21(2), 603-624. <https://doi.org/10.1093/icon/moad056>

ÁNGELES, J. C. (2022). La (de) construcción de las relaciones de filiación y paternidad a través de la jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos. *Actualidad jurídica iberoamericana*, (17), 550-575.

CORDERO DEL CASTILLO, P. (2010). La familia española entre el tradicionalismo y la postmodernidad. *Humanismo y Trabajo Social*, (9), 157-170.

CEA D'ANCONA, M^a ÁNGELES (2009). «La sociedad española ante los nuevos modelos de familia». *Panorama Social*, (10), 8-22.

FINEMAN, M. A. (2019). The neutered mother. In *Language, Symbolism, And Politics* (pp. 169-184). Routledge.

JONES, T, BOLGER. A, DUNE.T, LYNKINS.A ETA HAWKES.G (2015). *Transgender People's Experiences in Australia*. Springer.
file:///C:/Users/EUKENE/Downloads/978-3-319-13829-9.pdf

MARGARIA, A. (2020). Trans men giving birth and reflections on fatherhood: what to expect?. *International Journal of Law, Policy and the Family*, 34(3), 225-246.

MARGARIA, A. (2022). When the personal becomes political: Rethinking legal fatherhood. *International Journal of Constitutional Law*, 20(3), 1386-1396.

O. SÁNCHEZ, (2010) *Igualdad sexual y diversidad familiar: ¿La familia en crisis?* Universidad de Alcalá <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eahu/53518>

RIVERO HERNÁNDEZ, F. (1997). ¿ Mater semper certa est? Problemas de determinación de la maternidad en el ordenamiento español. *Anuario de Derecho Civil*, 5-96.

ROLDÁN-MESA, S. (2020). Asistencia sanitaria a personas transexuales: igualdad y libre autodeterminación de la identidad de género. *Trabajo Social Global – Global Social Work*, 10(19), 343-364.

SEVILLA, A., & SMITH, S. (2020). Baby steps: The gender division of childcare during the COVID-19 pandemic. *Oxford Review of Economic Policy*, 36(Supplement_1), S169-S186.

SOLÉ RESINA, J., GETE-ALONSO Y CALERA, M. (2021). Actualización del Derecho de Filiación (p. 1). Tirant lo Blanch.

QUICIOS MOLINA, M^a S. (2023). Las relaciones de filiación de personas LGTBI (*Tribuna Cuadernos de Derecho Privado*, (5) , 2-7.

VILELLA LLOP, M. D. P. (2021). Hacia un nuevo modelo de derecho de familia: análisis de las figuras y herramientas emergentes. Dykinson.

Araudia

- Europar Batasuneko Giza Eskubideen Gutuna
- 14/2006 legea, laguntza bidezko giza ugalketako teknikei buruzkoa. (EBO 126 zk, 2006ko maiatzak 27koa).
- Kode Zibila (EBO 206 zk., 1889ko uztailak 25ekoa).
- Erregistro Zibileko Legea (EBO 75 zk, 2011ko uztailak 22koa).
- Ley 4/2023, de 28 de febrero, para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI. (EAO, 51 zk, 2023ko martxoak 1).

- 2/1988 Legea, martxoaren 4 koa. (EAO 45 zk, 1988 martxoaren 4).
- Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. (EAO, 74 zk, 2022ko martxoak 28, 40253- 40312 orr.)

Jurisprudentzia

- Familia arloko auzitegi nagusiaren eta administrazioarekiko auzien epaitegiaren apelazio-errekurtsoa (Administrazioarekiko auzien epaitegian), 2020ko apirilak 29, 2019/2730, McConnell eta YY Erregistro Orokorren aurka
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpena, 2023ko apirila. O.H and G.H. vs. Germany (53568/18 and 54741/18).

Web orrialdeak

- Beatie. T (2008ko martxoak 14) Labor of love: is society ready for this pregnant husband? *Advocate*. <https://www.advocate.com/news/2008/03/14/labor-love>
- Berdintasun eta Diskriminazio Ezaren Batzordea, (2018ko urriak 10a). [*PACE Resolution 2239 \(2018\) "Private and family life: achieving equality regardless of sexual orientation"*](#)
- Berdintasun Ministerioa (Espainia). In Wikipedia. 2024ko ekainak 7an hemen eskuragarri: [https://es.wikipedia.org/wiki/Ministerio_de_Igualdad_\(Espa%C3%B1a\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Ministerio_de_Igualdad_(Espa%C3%B1a))
- Berdintasun Ministeritza <https://www.igualdad.gob.es/ministerio/funciones/>.
- Booth, R. (2020ko apirilak 19). Transgender man loses appeal court battle to be registered as father. *The Guardian*. <https://www.theguardian.com/society/2020/apr/29/transgender-man-loses-appeal-court-battle-registered-father-freddy-mcconnell>
- Emakunde. <https://www.emakunde.euskadi.eus/hasiera/>

- Emakunde (2022). 2022ko Jarduren Memoria. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde_memorias/eu_emakunde/adjuntos/2022.memoria.emakunde.eu.pdf
- Emakunde. Estrategia 2030 para la igualdad de hombres y mujeres en la CAE. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_planes/es_de/adjuntos/estrategia_igualdad_2030.pdf
- Europako Parlamentua. (2012ko maiatzaren 24koa). Informe sobre la hoja de ruta de la UE contra la homofobia y la discriminación por motivos de orientación sexual e identidad de género. https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-7-2014-0009_ES.html#_section1
- Europar Batasuneko Askatasun Zibil, Justizia eta Barne Arazoetarako Batzordea. (2014ko urtarrilaren 8koa). Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko homofobiaren eta diskriminazioaren aurkako EBren ibilbide-orriari buruzko txostena. https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-7-2014-0009_ES.html#_section1
- Europako Kontseilua (2018ko urriak 10). 2239 Erresoluzioa “Private and family life: achieving equality regardless of sexual orientation” <https://assembly.coe.int/nw/xml/XRef/Xref-XML2HTML-en.asp?fileid=25166>
- Europako Gai Juridikoetako Batzordea, (1989ko irailak 29). Resolution 1117, on the condition of transsexuals <https://assembly.coe.int/nw/xml/XRef/Xref-XML2HTML-en.asp?fileid=15151&lang=en#>
- Giza Eskubideen Goi Komisarioa. (2015eko iraila). Lesbianen, gayen, bisexualen, transen eta intersexen aurkako indarkeria eta diskriminazioa amaitzeari buruzko txostena. https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Discrimination/Joint_LG_BTI_Statement_ES.PDF

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Paris, 1948ko abenduak 10a.
<https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>
- González, Berto. (2021eko uztailak 19). 'Papá gestante': la historia del primer hombre transexual embarazado visible en España. *Shangai*.
<https://shangay.com/2021/07/19/papa-gestante-historia-hombre-transexual-embarazado/>,
- Oinarrizko Eskubideen Europako Auzitegia (1950). Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena.
https://www.echr.coe.int/documents/d/echr/convention_ENG
- López, Noemí. (2023ko otsailak 16). Aprobada definitivamente la ley trans y LGTBI que permitirá cambiar el sexo legal sin requisitos a partir de los 14 años. *Newtral*. <https://www.newtral.es/aprobada-ley-trans-lgtbi/20230216/>
- Nazio Batuen Erakundea. (2008ko abenduak 18a) NBE adierazpena sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa. .
<https://www.ohchr.org/es/sexual-orientation-and-gender-identity/united-nations-resolutions-sexual-orientation-gender-identity-and-sex-characteristics>
- Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak, (2011ko ekaina). 17/19 Ebazpena
<https://www.pgaction.org/inclusion/es/background/united-nations.html>
- Moraga, I. (2014ko otsailak 5a). *El diario*
https://www.eldiario.es/politica/parlamento-europeo-ppe-mayor-oreja-informe-lunac_ek_1_5039900.html
- Real Academia Española. Madre. In Diccionario de la lengua española. 2024ko maiatzak 30an hemendik berreskuratuta: <https://dle.rae.es/madre>
- Real Academia Española. Padre. In Diccionario de la lengua española. 2024ko maiatzak 30an hemendik berreskuratuta: <https://dle.rae.es/padre>
- Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen Zuzendaritza Nagusia. In Wikipedia. 2024ko ekainak 4an hemen eskuragarri:

https://es.wikipedia.org/wiki/Direcci%C3%B3n_General_para_la_Igualdad_real_y_efectiva_de_las_personas_LGTBI%2B

- Yogyakarta Printzipioak, Geneva, 2007ko martxoak 26a.
<https://www.refworld.org/legal/resolution/icjurists/2007/en/58135>